

EUSKARA

Maitane MILTON CORDOBA

**HAUR HEZKUNTZAKO UMEEN EUSKARAZKO
PRODUKZIOA ETA GARAPENA:
METODOLOGIAREN EBALUAZIOA**

GBL / TFG 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua /
*Grado en Maestro de Educación Infantil***

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**HAUR HEZKUNTZAKO UMEEN EUSKARAZKO
PRODUKZIOA ETA GARAPENA:
METODOLOGIAREN EBALUAZIOA**

Maitane MILTON CORDOBA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Maitane MILTON CORDOBA

Izenburua / Título

Haur Hezkuntzako umeen euskarazko produkzioa eta garapena: metodologiaren ebaluazioa.

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Orreaga IBARRA MURILLO

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila / Departamento de Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 2010eko 861/2010 Errege Dekretua aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluak hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak oinarri bat ematen digu, irakaskuntzari buruzko testuingurua ezagutzeko. Oso garrantzitsua iruditzen zait, izan ere oinarririk ez izanez gero, nahiz eta didaktika jakin, azpian dagoena ez da ezagutzen. Honetaz gain, teoria ezberdinak ezagutzea ezinbestekoa da, bakoitzak bere estiloa finkatzea eta guztietatik ideia bat ezagutzea beharrezkoa delako irakasle batentzat. Horregatik, lan hau aurrera eramateko beharrezkoa da mintzairari buruzko teoriak ezagutzea, zein den hurrek jasaten duten prozesua ahozko hizkuntza berenganatzeko, lanaren 1. atalan zehazten dena, hain zuzen ere.

Didaktika eta diziplinako moduluetan zehazten da nola irakatsi ikasgai mota bat. Hau da, nahiz eta lengoaiari buruzko teoria oso ondo jakin, modulu mota hauen bitartez aukera ematen du hizkuntza bera nola irakatsi, zein estrategiak erabili daitezkeen, gela nola zuzendu, etab. Irakasgai mota hauek funtsezkoak dira graduarentzako, horrela, jakintza guztiak nola azaleratu ahal diren erakusten dutelako. Alderdi hau, lanaren 2. eta 4. ataletan zehaztu ditut. Bertan, ahozko hizkuntza irakasteko estrategiak eta baliabideak azaltzen dira.

Halaber, Practicum moduluak bidea ematen digu gure etorkizuneko lana eta ikastetxe mota ezberdinak barnetik ezagutzeko. Azken moduluak batez ere aukera ematen du gradu osoan zehar ikasitakoa, teorian aztertutakoa, errealitatean islatuta ikusteko. Practicumak dira modurik hoberenak ikasitakoa praktikara eramateko eta aukeratutako lanbidea benetan gustatzen zaigun ala ez jakiteko. Bertan, practicum moduluan, ikasitakoa 2. eta 3. ataletan zehazten da, non datuen bilketa eta erabiltzen duten metodologia agertzen den.

Azkenik, aukerako moduluak gure ezagutzak eremu zehatz batean garatzeko aukera ematen digute. Gradu osoan zehar denetatik ikasten da baina aukerako moduluen bidez, interesa pizten diguten gai horiek gehiago sakontzeko bidea ematen digute. Oso baliagarria iruditu zait irakasle izango naizenerako ezagutza berri horiek aplikatzea oso beharrezkoa iruditzen zaidalako. Honetaz aparte, eskaintza handia izatea erabilgarria izango da gure etorkizunerako, mota askotako ezagutzak izango ditugulako. Nire kasuan, Pedagogia Terapeutikoko aipamena aukeratu nuen eta oso erabilgarria suerta daiteke hizkuntzaren garapenaren arloan. Izan ere, aipamen horri esker hizkuntzarekin

erlazioa duten nahasmenak ezagutu ditut; dislexia edo disgrafia esaterako. Horrela, hauei nola aurre egin daitekeen ikasi egin dut, etorkizunari begira oso erabilgarria izango dena.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Introducción” atala eta marko teorikoaren zati bat “ Desarrollo del lenguaje oral”, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoan ere.

Laburpena

Lan honetan mintzamenaren garapena oinarritzat izanda, Nafarroako Foru Komunitateko beste hizkuntza, euskara, aztertzen da Haur Hezkuntzako garaian. Honen bidez, behatu daiteke nola bakarrik hiru urtetan haur askok euskaraz deus ez ulertzetik, adierazten jakitera igarotzen diren, 3 urte dituztenetik 5 urte arte, hain zuzen ere. Iruñean, nahiz eta zonalde mistoa izan, haur gehienek erdara daukate ama hizkuntza gisa. Beraz, irakasteko metodoa ezberdina da euskara ama-hizkuntza duten beste lekuekin konparatuz, haur askok Haur Hezkuntzan izango baitute hizkuntza honekin lehen harremana.

Lan honen xede edo helburu nagusietako bat da haurren euskarazko garapena aztertzea, ondoren ikastetxeetan euskara irakasteko erabiltzen duten metodologia ebaluatzeko eta aztertzeko. Modu honetan, geletan erabiltzeko eta lantzeko iradokizun berriak emango dira hizkuntza honen irakaskuntza maila hobetze aldera.

Azkenik, egiaztatzen da hizkuntzaren irakaskuntza metodoa egokia dela ama hizkuntza erdara duten haurrentzat eta froga daiteke hauen hizkuntzaren garapena motelagoa izaten dela haur euskaldunekin alderatuz.

Hitz gakoak: Haur Hezkuntza; Irakaskuntza; Euskara; Bigarren hizkuntza (2H); Hizkuntzaren garapena.

Resumen

Este es un trabajo en el que, basándose en el desarrollo del lenguaje oral, analiza la enseñanza de la otra lengua autóctona de la Comunidad Foral de Navarra, el vasco o euskera, en Educación Infantil. Mediante este trabajo, se puede observar cómo muchos niños de no entender absolutamente nada de euskera, pasan a saber expresarse en tan solo tres años, desde los 3 a los 5 años de edad concretamente. En Pamplona, aun siendo zona mixta, la mayoría de los niños tienen el castellano como lengua materna. De esta forma, el método de enseñanza es diferente que en otros lugares donde se habla euskera, ya que para muchos su primer contacto con este idioma será en Educación Infantil.

El objetivo principal de este trabajo es hacer un análisis sobre el desarrollo de la lengua vasca oral entre 3 y 5 años, para poder evaluar la metodología usada en los centros

para enseñar el euskera. Así, dar nuevas propuestas para trabajar en las aulas y mejorar el nivel de enseñanza de este idioma.

Finalmente, se comprueba que el método de enseñanza de la lengua es adecuado para niños con castellano como lengua materna y que la evolución del aprendizaje es más lenta que los parámetros propuestos para niños nativos vascos.

Palabras clave: Educación Infantil; Enseñanza; Euskera; Segundo Idioma; Desarrollo del lenguaje.

Abstract

This project, which is based on the development of the oral language, analyses the teaching of Basque, the other native language in the autonomous region of Navarre, in nursery education. Through this project, it can be seen how many children go from not understanding anything in Basque, to being able to express themselves in just three years, from the age of 3 to 5. In Pamplona, although being in the “mixed area” of Navarre, where both Spanish (Castellano) and Basque are spoken, Spanish is the native language for the majority of children. For this reason, the teaching methodology is different from other places, where Basque is spoken, because for many children their first contact with the Basque language will be at nursery school.

The main objective of this project is to do an analysis of the development of the Basque language as a means of evaluating, both positively and negatively, the methodology that is used to teach Basque in schools. In this way, we will consider new proposals for working in the classroom and improving the level of teaching of the Basque language.

Finally, we can conclude, that the language learning methodology is useful to children who has Spanish as first language. Although, the development of the knowledge is slower, comparing it to the parameters established to those children who has Basque as first language.

Keywords: Infant Education; Teaching; Basque; Second language; Language development.

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| Introducción | 1 |
| 1. Marko teorikoa | 3 |
| 1.1. Desarrollo del lenguaje oral / Mintzairaren garapena | 3 |
| 1.1.1. Etapa pre-lingüística | 3 |
| - Prebalbuceo: Vocalizaciones reflejas y gorjeo | 3 |
| - Balbuceo | 3 |
| 1.1.2. Etapa lingüística | 4 |
| 1.2. Euskararen garapena | 5 |
| 1.2.1. Ulermena | 6 |
| 1.2.2. Produkzioa | 7 |
| 1.2.3. Oinarriak | 13 |
| 2. Metodologia eta diseinua | 17 |
| 2.1. H.H.ko 1.maila : 3 urtekoen gela | 17 |
| 2.1.1. Ikasleen euskara maila | 17 |
| 2.1.2. Lantzen diren egiturak | 19 |
| 2.1.3. Ahozko produkzioa | 23 |
| - Transkripzioak | 23 |
| 2.2. H.H.ko 2.maila : 4 urtekoen gela | 26 |
| 2.2.1. Ikasleen euskara maila | 26 |
| 2.2.2. Lantzen diren egiturak | 27 |
| 2.2.3. Ahozko produkzioa | 31 |
| - Transkripzioak | 31 |
| 2.3. H.H.ko 3.maila : 5 urtekoen gela | 32 |
| 2.3.1. Ikasleen euskara maila | 32 |
| 2.3.2. Lantzen diren egiturak | 34 |
| 2.3.3. Ahozko produkzioa | 38 |
| - Transkripzioak | 38 |
| 2.4. Ariketa motak | 41 |
| 3. Garapenaren azterketa | 44 |
| 3.1. H.H.ko 1.maila : 3 urtekoen gela | 44 |
| 3.2. H.H.ko 2.maila : 4 urtekoen gela | 46 |
| 3.3. H.H.ko 3.maila : 5 urtekoen gela | 48 |
| 3.4. Garapenaren behaketa | 50 |

| | |
|--|-----------|
| 4. Hobekuntzarako estrategiak | 54 |
| 4.1. Jarduera motak | 54 |
| 4.1.1. Tradiziozko kantaak | 54 |
| 4.1.2. Olerkiak | 54 |
| 4.1.3. Abestiak | 55 |
| 4.1.4. Hitz jokoak | 55 |
| 4.1.5. Zotz egiteko kantaak | 56 |
| 4.1.6. Asmakizunak | 56 |
| 4.1.7. Ipuinak | 57 |
| 4.1.8. Talde antzerkiak | 57 |
| 4.2. Antolaketa eta baliabideak | 57 |
| Ondorioak | 59 |
| Erreferentziak | 61 |
| Eranskinak | 62 |
| E. Hiru txerrikumeen komikia | 62 |

INTRODUCCIÓN

El euskera en Navarra no está en la misma situación que en otras comunidades autónomas como Guipúzcoa y Vizcaya. En Pamplona, por ejemplo, aun siendo zona mixta, la mayor parte de la población habla el castellano y muchos que saben euskera lo han aprendido más tarde, es decir, tienen el castellano como lengua materna. Por lo tanto, muchos de los niños al empezar en el modelo D en Educación Infantil, no saben nada en este idioma. Al no entender nada, la metodología de este ciclo debería ser diferente a la usada en zonas donde se habla el euskera. Por ello, planteo la siguiente pregunta: ¿Son adecuados los métodos utilizados para la enseñanza de la lengua vasca?

Como bien dice el currículo del segundo ciclo de Educación infantil, “el lenguaje oral es especialmente relevante en esta etapa, es el instrumento por excelencia de aprendizaje, de regulación de la conducta y de manifestación de vivencias, sentimientos, ideas, emociones, etc. “. Por esto, es importante trabajarlo adecuadamente para su desarrollo.

La finalidad de este estudio es valorar la metodología utilizada para la enseñanza del euskera. Para ello, es necesario analizar el desarrollo que tienen los niños de educación infantil, ya que de esta forma se pueden ver los resultados de la forma de enseñanza. Durante el análisis, se compararán dos tipos de niños, los que tienen el euskera como lengua materna y los que tienen el castellano. De esta forma, los resultados serán diferentes, ya que tienen diferentes lenguas como referencia, unos el euskera y otros el castellano. Así, la forma de asimilar el idioma será diferente. Los niños vasco-parlantes, aunque no hayan empezado a producir correctamente, tendrán el idioma interiorizado y les resultará más fácil expresarse. Los que tienen como lengua materna el castellano, en cambio, no han oído nunca este nuevo idioma. Por lo tanto, cada vez que estén inseguros o tengan dudas, cambiarán de idioma refugiándose en el castellano, su lengua de origen.

Para empezar se dará una breve introducción sobre el desarrollo del lenguaje oral. Una vez aclarado el proceso, se continuará con una pequeña base sobre el desarrollo de la lengua vasca. En este caso, al tener los niños el castellano como lengua materna, el desarrollo será diferente, ya que empezaran más tarde con este nuevo idioma. Una vez explicada la teoría, se empezará con el análisis, el segundo capítulo de este trabajo. Al principio se darán los datos utilizados de los alumnos; cuál es la lengua materna de cada uno, el nivel de euskera que tienen y cuando y con quién o quienes lo utilizan. Luego, se explicará qué estructuras gramaticales y con qué contexto se enseñan para que los niños vayan desarrollando poco a poco el idioma. Al final del capítulo, se reflejarán cuales son los resultados de las estructuras utilizadas durante el curso mediante transcripciones del día a día de los niños recogidas de las aulas. Después de esto, analizaré las transcripciones recogidas comparándolas con la teoría del desarrollo del lenguaje. En el cuarto capítulo propondré nuevas estrategias mediante recursos y actividades para trabajar mejor el desarrollo de la lengua vasca. Para finalizar, concluiré explicando los resultados de los métodos utilizados, analizando los aspectos positivos y negativos de las estrategias.

Los objetivos principales de este trabajo son:

- Analizar el desarrollo del lenguaje oral desde los 0 a los 6 años dependiendo de la lengua materna del niño. Así, analizar la diferencia del desarrollo entre los que tienen el euskera o el castellano como lengua materna.
- Examinar la metodología utilizada por las escuelas para la enseñanza del euskera a aquellos que nunca han tenido ningún contacto con esta lengua. De esta forma, poder valorarla y determinar si es adecuada.
- Comparar la teoría sobre el desarrollo del lenguaje oral con tres grupos de Educación Infantil para así, confirmar la teoría.
- Proporcionar nuevos recursos para trabajar el desarrollo del lenguaje oral en las escuelas.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Desarrollo del lenguaje oral / Mintzairaren garapena

Antes de empezar, me gustaría aclarar que la mayoría de los alumnos de la Comarca de Pamplona tienen el castellano como lengua materna. Por lo tanto, en Educación Infantil será la primera vez que oigan la lengua vasca, para muchos ese será su primer contacto. Por esto, me parece conveniente antes de nada conocer el desarrollo del lenguaje desde recién nacidos hasta la etapa de Educación Infantil. De esta manera, será más fácil comprender el desarrollo que tienen al aprender esta segunda lengua.

El lenguaje es la capacidad del ser humano para expresar sus pensamientos y comunicarse. El ser humano tiene la capacidad de comunicarse a través de diferentes sistemas (mediante gestos, escritos, lenguaje oral,...). Pero, para llegar hasta eso tiene que pasar una evolución para llegar a poder expresarse de forma oral.

Diversos autores como F. Millan Chivite (1995-96: : 817 - 850) creen que el desarrollo del lenguaje verbal se divide en dos etapas:

1.1.1. Etapa pre-lingüística

Esta etapa es en la que se trabaja el nivel fónico. Aunque muchas veces no se le da la importancia debida, es muy importante ya que es donde se forman las bases para la producción de sonidos, silabas y palabras. Esta etapa se caracteriza por las expresiones vocales y sonidos que emite el niño desde el llanto hasta los gorjeos y balbuceos en el primer año.

- Prebalbuceo: Vocalizaciones reflejas y gorjeo (0 – 2 meses)

En estos dos primeros meses el niño se comunicará mediante el llanto para satisfacer sus necesidades. Reacciona ante sonidos, y presta atención a voces y ruidos familiares. Hacia el segundo mes empiezan las primeras articulaciones espontaneas y gorjeos (“ajo”).

- Balbuceo (3 – 10 meses)

· Juego vocal (3-6 meses): Durante estos meses el niño pasa de emitir sonidos espontáneos y empieza a hacerlos voluntariamente. El niño empieza a emitir diversos sonidos como los murmullos, chillidos, gruñidos y parloteos y empieza a imitar ciertos sonidos.

Según Piaget (1965), el niño va siendo consciente de las fonaciones, gorjeos, etc. tienen influencia sobre el entorno y así, aprende a comunicarse, relacionando lo que emite con el efecto que causa.

· Imitación de sonidos (6-10 meses): Utilizando los balbuceos como forma de comunicarse, empezará a relacionarse con las demás personas principalmente mediante vocales unidas a consonantes (/pa/, /ma/, /ba/, /ta/). En estos meses será capaz de vocalizar y escuchar sus vocalizaciones, manejar los músculos bucales, decir una o dos palabras (mamá, papá) e imitar sistemáticamente.

1.1.2. Etapa lingüística

Esta etapa empieza cuando el niño asocia un contenido o idea (significado) con una forma (ser u objeto), es decir, identifica la palabra con su significado. Aunque el desarrollo de cada niño es diferente, esta etapa suele empezar sobre el año de edad. A partir de entonces, este suele ser el proceso:

- 12 meses:
 - Imita las palabras y la entonación de los adultos.
 - Comprende órdenes y prohibiciones.
 - Dice 2 o 3 palabras de promedio (mamá, agua, etc.).
 - Reclama objetos mediante gestos y sonidos.
 - Repite algunas palabras a través de la imitación y repetición.
- 13 meses:
 - Aparece la jerga infantil.
 - Indica objetos por su nombre.
- 15 meses:
 - Pronuncia cuatro o cinco palabras incluso su nombre.
- 18 meses:
 - Su nivel de comprensión mejora notablemente,
 - Nombra y señala dibujos y objetos.
 - Primeras combinaciones de palabras.
 - Utiliza unas diez palabras.

- Preguntar: ¿Qué es esto? Muestra interés por el nombre de las cosas.
- Empieza a pedir las cosas señalando o nombrando los objetos,
- Señala algunas partes de su cuerpo cuando se lo piden.
- 21 meses:
 - Vocabulario alrededor de veinte palabras.
 - Combina dos o tres palabras espontáneamente formando frases gramaticales.
- 24 meses:
 - Vocabulario entre 300 y 1000 palabras según el entorno lingüístico.
 - Realiza algunas combinaciones cortas. Frases con tres elementos.
 - Utiliza el habla como medio de comunicación y se refiere a sí mismo como tercera persona.
 - Expresa experiencias simples.
 - Utiliza nombres, verbos en infinitivo y en imperativo, usa adjetivos de carácter afectivo y pronombres relacionados con el “yo”, “tu”, “mío” ...
- 30 meses:
 - Comprensión muy evolucionada. Entiende y se hace entender.
 - Expresión: indica el uso de los objetos.
 - Dice su nombre completo.
 - Usa frases opuestas “es feo” / “es guapo”.
 - Frases sin nexos: habla telegráfica.
- 36 meses:
 - Comprensión: entiende las preguntas y las responde. Comprende y realiza órdenes sucesivas.
 - Vocabulario: entre 900 y 1200 palabras.
 - Muestra gran interés por el ¿para qué? de las cosas.
 - Usa oraciones compuestas de 4 ó 5 palabras y complejas. Manifiesta capacidad de contar historias, mezclando ficción y realidad.
 - Utiliza oraciones subordinadas.
 - Escaso uso de verbos: infinitivo e imperativo.
 - Aparece la coordinación en sus frases.

1. 2. Euskararen garapena

Haur hezkuntzara heltzen direnerako 3 urterekin, aipatutako prozesu guztia pasa dute. Askoren arazoa beraz hizkuntza bera da, hau da, aurrean daukaten hizkuntza ezezaguna da orain arte erdara bakarrik entzun baitute. Horregatik produkzioa bera landu baino lehen, ulermena bermatu behar da

1.2.1. Ulermena

Haurren bizitza errutinek arautzen dute: otorduak, garbiketa, jolasa, lotarako ordua, etab. Eta etxean errutina finko batzuk dituzten bezala, eskolan ere horrelakoak dituzte: irakurketa garaia, makinistaren lana (zerrenda, eguraldia, asanblada, etab.), komunera joateko garaia, hamarretakoa, txokoak... Makinistaren lana egitea oso lan garrantzitsua da haientzako. Egun bakoitzean haur bat izango da eta bera izango da eguneko protagonista. Makinistak ardura ugari izango ditu; hala nola, irakasleari asanblada zuzentzen lagundu, lagunei materiala / hamaiketakoa banatu, zerrenda pasa, eguraldia begiratu, data begiratu, etab.

Modu honetan, errepikakorra den testuinguru zehatz bat emanda, haurrek denborarekin egiten eta esaten den guztia interpretatu ahal izango dute.

Hasiera batean, normala den bezala, haurrek ez dute ezer ulertuko, baina irakasleak galderen, errepikapenen eta keinuen bitartez lortuko du haiek ikastea. Adibidez:

- Irakaslea (peluxe bat hartuz) : Begira lagunak!(arreta erakartzeko deia)
- Ikasleak: ... (ez dute ezer erantzuten)
- Irakaslea: Zer da hori? (tonu ozena eta gehiegizkoa erabiliz)
- Ikasleak: ... (ez dute ulertzen)
- Irakaslea: Txakurtxo (etiketa jartzen dio)
- Ikasleak: Perro (ezagutzen duten hizkuntzan)
- Irakaslea: Bai, txakurtxo bat da. (euskarara itzultzen du. Parafrasia. Feedbacka)
- Irakaslea: Eta nola egiten dute txakurrek?
- Ikasleak: ...
- Irakaslea: Guau, guau, guau!
- Ikasleak: Guau, guau, guau!(txakurraren soinuari buruz ari direla ulertu dute)
- Irakaslea: Oso ondo bai, guau, guau.

Errepikapen eta keinuen bidez ulermena bideratzen da. Behin eta berriz galdetzen badiegu hurrei zer den peluxe hori eta beti txakurra dela esaten

badugu, ulertuko dute “perro” txakurra dela. Hala ere, hori askotan errepikatu behar da, hurrek interpretatu ahal izateko.

Irakasleak mekanismo ugari erabili behar ditu ulermena bermatzeko. Ezin zaie pertsona heldu bati bezala hitz egin, ez dutelako ulertuko. Irakasleak hurrei hitz egiteko moduaren ezaugarriak hauek izango lirateke Ruiz Bikandik (2009: 61) dioen bezala:

- Artikulazio argia.
- Igorpen sinpletuak: esaldi laburrak, esanahi gutxi batera.
- Gramatika aldetik sinpleak eta osoak diren igorpenak, hasiera eta bukaera argi dutenak.
- Esanahi zehatzak. Datu argi eta sinpleak.
- Asko erabiltzen den lexikoa.
- Helduekin baino erritmo geldoagoa.
- Hedapenak: hurrak esandakoaren zabaltzea.
- Parafraasiak: hurrak edo helduak berak esandakoa bestela adieraztea.
- Tonu ozenak, intonazio goranzkoa, gehiegizkoa, keinuak.
- Galdera asko.
- Arreta-deiak maiz.
- Errepikapen ugari.
- Txikikariak eta errepikapenak sarri.
- Hots edo bukaera bereziak.
- Batzuetan, helduek erabiltzen dituztenen guztiz bestelako hitzak.

Beraz, hurrek helduak komunikatu nahi duena uler dezaten, helduak bere hizkera moldatu beharko du hauek erraztasuna izan dezaten. Horretarako aipatutako mekanismoak erabili beharko ditu. Hasiera batean aurrean dutenaz hitz egin behar dute, momentuan ikusten denari buruz, aurrerago zabaldu izateko eta bizi izandako esperientziei buruz hitz egin ahal izateko.

1.2.2. Produksioa

Esan bezala, errutinen bidez, errepikapenak, eta irakaslearen laguntzaz, azkenean hizkuntza ulertuz joango dira. Ulermena aurrera doan bitartean,

hizkuntzarenganako ziurtasuna ere handituko da. Une horretan, ikasten ari diren hizkuntza berri hori hitz egitera ausartzen hasiko dira.

Berez, hau izango litzateke garapena arrunta J.J. Zubiri-k (1996-1997) dioenez:

1. taula. Hizkuntzaren garapena.

| 3 URTE | |
|------------------|--|
| Deklinabidea | Kasu gehienetan singularrean; pluralak ere agertzen hasten dira. Mugagabea absolutiboan agertzen zen (zenbait determinatzaileekin), nahiz oraindik ere hutsak egin, baita lekuzko kasuetan ere. |
| Izen sintagma | Gehienak sinpleak dira (nirea, etxea, gorria) eta konplexuak agertzen hasten dira (kotxe gorria, nire panpina, etab.) |
| Aditza | Aspektua (-tu, -t(z)en, -tuko) garatua dago. Laguntzailea (nor eta nor-nork) erabiltzen ditu, nor-nori-nork lehengo formak hasten dira agertzen (diot, dit, dizut, etab.). Iraganeko lehenengo formak ere agertzen dira. |
| Esaldi elkartuak | Juntadurako honako gailuak agertzen dira: eta, baina ... Mendeko esaldiak ere agertzen hasten dira, lehenbizi aditz izenekin osatutakoak, hau da, jokatuabeak (-t(z)era, -t(z)eko, ...). Beranduxeago mendeko esaldi jokatuak: kausazkoak (-(-e)lako, bait-, eta), konpletiboak (-(-e)la), lehenengo zehar galderak (-(-e)n), erlatibozkoak (-(-e)na), etab. |
| Hitzez hitz | Bereziki galde-erantzun motako elkarrizketak. |
| 4 URTE | |
| Deklinabidea | Kasu nagusienak singularrean eta pluralean ibiltzen ditu. Partitiboarekin oraindik arazoak izanen ditu. Mugagabea erabiltzen eta finkatzen doa, nor kasuan eta lekuzkoetan. |
| Izen sintagma | IS konplexuagoak agertzen dira, bai ezker aldera hedatuak, bai eskuin aldera hedatuak. Konparaketak ere agertzen dira (-ago, -egi, -en). |
| Aditza | Nor-nori-nork saileko adizki ugari erabili eta finkatzen dira. Iraganaldia ere bai, bereziki nor eta nor-nork sailean. Nor-nori-nork iraganaldiko adizkiak agertzen dira eta lehenbiziko forma asmatuak ere bai. |
| Esaldi elkartuak | Juntaduran, aurrekoez gain, edo bidezkoak agertzen dira. Nominalizazio bidezko mendeko esaldiak agertzen dira (-t(z)ea, -t(z)en ...). Mendekoak finkatzen doaz: kausazkoak, erlatibozkoak sintagmaren izenarekin, konpletiboak (-(-e)la) ondo erabiltzen ditu, zehar galderak (nahiz oraindik akatsak egin), denborazkoak (-(-e)nean). |
| Hitzez hitz | Elkarrizketa laburrak, kontakizun laburrak, azalpen sinpleak, oinarrizko deskribapenak, etab. |

| 5 URTE | |
|------------------|---|
| Deklinabidea | Oro har, ondo finkatua dago. Oraindik partitiboarekin eta deklinabide kasuko hainbat mugagaberekin arazoak izanen ditu. |
| Izen sintagma | Egitura nagusienak ondo ibiltzen ditu. Zenbait gainorokortze akats oraindik ere egingen ditu. |
| Aditza | Iraganaldiko formak gero eta gehiago erabiltzen ditu. Forma asmatuak, batez ere nor-nori-nork sailean, erruz agertzen dira (nagoen, zenidazun, zidazun, etab.). Oraindik ez dira ondo bereizten nauzu/didazu moduko sailak. |
| Esaldi elkartuak | Esaldi luzeago eta konplexuagoak erabiltzeko gai da (eta erabiltzen ditu). Denborazko esaldien zabalkundea (-(e)nean, ondoren / eta gero, -ta, bitartean ...). |
| Hitzez hitz | Elkarrizketa luzeagoak, kontakizun laburrak (4 urtekin baino luzeagoak), azalpentxoak, deskribapenak ere zehatzagoak dira, argudiozko lehenengo saiakerak (zergatik egin diozu hori?). |

Hala ere, guztiek ez dute garapen hori izaten. Aipatutako hori haur euskaldunen garapena da eta ondoren aztertuko ditudanak haur erdaldunak dira; hau da, askorentzat 3 urtetan izango da euskararekin haien lehen harremana. Beraz, lehen aipatu bezala, hasieran ulermena bermatu beharko da. Ondoren, ama hizkuntza duten haurren antzeko garapena izango dute, nahiz eta bigarren hizkuntza honetan, beranduago izan.

Lehenengo produkzioetan, erdararen kutsua dela eta akats ugari izango dituzte.

Hona hemen bildu ditudan adibide batzuk:

- Daude uran monedak, dineroak. ✗ → Uretan txanponak daude. ✓
- Nire aita da amerikano. ✗ → Nire aita amerikarra da. ✓
- Zegoen mariposa bat. ✗ → Tximeleta bat zegoen. ✓
- Nik andatu Noain asko. ✗ → Ni Noainen asko ibili nintzen. ✓
- Ez egiten du ni kaso. ✗ → Ez du kasurik egiten. ✓
- Kansatu naiz. ✗ → Nekatuta nago. ✓
- Eske da oso difizil moztu. ✗ → Moztea oso zaila da. ✓
- Nire ahizpa eta ni esnatu gara ordu misman. ✗ → Nire ahizpa eta ni ordu berean esnatu gara. ✓
- Eman zuen krema solekoa. ✗ → Eguzkitako krema eman zuen. ✓
- Nora joan dira? Trabajatzer. ✗ → Nora joan dira? Lanera. ✓
- Mikel empujatu niri. ✗ → Mikelek bultzatu egin nau. ✓

Akatsak zuzentzea oso garrantzitsua da hizkuntzaren garapena egokia izateko. Ez badira behar denean zuzentzen, hurrek ontzat hartuko dituzte eta barneratuko dituzte, aurrerantzean horiek zuzentzea zailagoa izanen delarik.

Hala ere, zuzenketak egiterako garaian hainbat alderdi izan behar dira kontuan; hala nola, zein den ikaslearen nortasuna, zenbateraino dakien hizkuntza, nork zuzentzen dion, akats bat edo batzuk diren eta zein edo zeintzuk zuzendu, etab. Behin hori zehaztuta dagoela, zein laguntza mota eta laguntzeko teknikak edo tresnak erabiliko diren aztertuko dira.

Irakaslearen laguntza mota:

- Esplicituki zuzenduz berradierazten du ikasleak esandakoa.
- Implizituki zuzenduz berradierazten du ikasleak esandakoa.
- Laguntza eskaintzen du, esan beharrekoaren hasiera edo aurrera egiten laguntzeko esaldia esanez ikasleari.
- Ikasleak esandakoaren hitzez hitzeko zentzuari jarraitzen dio, komiko edo absurdu bihurtu arte.
- Esan edo idatzitakoa aztertzeko esaten dio, eta berriro esan edo idatz dezala.
- Adierazpen zuzena ematen dio.
- Eredua gogorarazten dio.
- Araua azaltzen dio.
- Esaten dio akatsa dagoela.
- Esaten dio non dagoen akatsa.
- Konpontzeko zenbait aukera eskaintzen dizkio; tartean, zuzena dena.

Laguntzeko teknikak edo tresnak:

- Irakaslearekiko eragin-trukea, hark solas-doiketak egiten dituelarik etengabe.
- Jatorrizko hitzunikiko solasa, haiek hezitzaile-gidari rola hartzen dutelarik.
- Buruz ikasitako testuak: errituak, olerkiak, elkarrizketatxoak, asmakizunak, kantak, antzerkiak, etab.
- Teknika mnemonikoen erabilera.
- Beste batzuek hizketa behatzea. Testu idatziak behatzea.
- Formari buruzko gramatika-gogoeta. Forma eta esanahia kontrastea.
- Forma, esanahia edota funtzioari buruzko gogoetak.

Hala ere, haur hezkuntzan gehien erabiltzen den estrategia, ikasleak gaizki esandako esaldia zuzen berresatearena da, bai irakasleak zuzen esanda, bai ikasleek pentsatuz zein den forma zuzena.

- Ikasleak: Nik ez dakit nor apurtu du.
- Irakasleak: Nik ez dakit norK apurtu duEN.
- Ikasleak: Nik ez dakit norK apurtu duen.

Honetaz gain beste estrategiak erabiltzen dira Sanzek eta Bilbatuak (1999) jasota:

- Galderak egitea erantzun zuzena jaso arte. Taldean erabiltzeko teknika da, gaizki esandako hitzak seinatzeko, irakasleak hitzok dagoeneko ezagunak direla jotzen duenean.

- Aurrera egitea, egindako akatsa hitzez hitz interpretatuz, haurrak konturatu eta zuzentzen duen arte:

- Ikaslea: Keak zikintzen dut.
- Irakaslea: Zuk?
- Ez, keak zikintzen du.

- Taldeari zuzendutakoa:

- Irakaslea: Zer, Maite, zer egin duzu?
- 1. ikaslea: "Atx" bat.
- Irakaslea: Zer?
- 1. ikaslea: "Atx" bat.
- Irakaslea: Hartz bat? Hau hartz da?
- 1. ikaslea: Hacha da.
- Irakaslea: Aaa! Hacha!
- 2. ikaslea: Aizkora.
- Irakaslea: Begira zein ondo dakien Rubenek. Aizkora!

Hizkuntza geroz eta hobeago garatuko dute hurrek, praktikaren bidez; hau da, entzumena eta mintzamena landuz. Hala ere, egoki garatzeko irakasleek adi egon behar dute urrats hauetan, hau da, irakasleen jokabidea funtsezkoa da hizkuntzaren garapenean. Hauei laguntzeko asmoz, Tough-ek (1989; 113 - 114) hainbat estrategia bildu zituen:

-Orientazio estrategiak: Gaia proposatzen dute, eta honen inguruko orientabideak ematen dituzte. Askotan iruzkin irekiak eta galderak izaten dira (“zergatik gertatu zaizu hori?”, “kontaidazu nola gertatu zaizun ...”). Galdera motaren arabera erantzuna ere zein motatakoa izango den erabakitzeak aukera ematen du. Beraz, oso aproposa da hainbat eremu lantzeko. Adibidez, “zergatik ... ?” galdetzen bada, “-(e)lako” atzikia erabiltzera behartzen da haurra.

-Errazteko edo laguntzeko estrategiak: Behin haurra hizketan ari dela, irakasleak galderak egiten dizkio kontatzen duena osatzeko edota argiago uzteko. Adibidez, “nola gertatu da?”, “non zegoen zehazki?”, “erori egin da ala bota egin dute?”, etab.

-Informazio estrategiak Elkarrizketa batean daudelarik, irakasleak ikasleei gertaerak kontatzen dizkie, datuak kontrastatuz, argudiatuz eta defendatuz. Modu honetan pentsatzeko eta defendatzeko ereduak emango dizkie ikasleei.

-Sostengu-estategiak: Ikasleen parte hartzera bultzatzen du estrategia honek, bere argudioak edo ideiak zabaltzeko.

Estrategia hauek bi helburu nagusi dituzte: ikasleen pentsamendua garatzea eta hizkuntzaren erabilera garatzea.

Irakasleentzako hizkuntza garatzen bultzatzeko estrategiak dauden bezala, ikasleek ere ulertzeko eta adierazteko teknika ezberdinak erabiltzen dituzte:

2. taula. Ikaslearen komunikazio estrategiak

| Ulertze estrategiak | Adierazte estrategiak |
|---|--|
| <p>-Asmatze adimentsua (dedukzioa, inferentzia).</p> <ul style="list-style-type: none"> · Testuinguruko gakoak erabiliz. · Hizkuntzako gakoak erabiliz. | <p>-Parafraasiak: beste hitz batzuen bidez esan adierazi nahi dena.</p> <ul style="list-style-type: none"> · Itzulenguruen bidez: entsaladako zati berdeak = letxuga . · Gutxi gorabeherako terminoak edo sinonimoak erabiliz. |

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Kode-transferentzia: <ul style="list-style-type: none"> · Mimika edo marrazkia erabiliz. · 1Hko hitzak sartuz 2Hko mintzaldian. · 2Hko ezaugarri morfologikoak sartuz 1Hko terminoan. · Kalkoak: 2Hn hitzez hitz itzuliz 1Hko esamoldeak. -Saihestea: <ul style="list-style-type: none"> · Gaia aldatzea. · Gaia desbideratzea. · Isiltasuna. -Hitzak asmatzea. -Laguntza eskatzea. |
|--|---|

1.2.3. Oinarriak

Aipatutako hori guztia egoki garatzeko, kontuan izan behar dira Nafar Gobernuak (2007) *Haur Hezkuntzako Curriculumean* finkatutako helburuak. Bertan Haur Hezkuntzako 2. zikloan landu beharreko oinarriko alderdiak azaltzen dira, hizkuntza haien artean. Hasiera batean, ondorengo helburu orokorrak azaltzen dira:

1. Hizkuntza erabiltzen ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetzaren erregulatzeko bide gisara baloratzea.
2. Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.
3. Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
4. Literaturako testu batzuk ulertu, errepikatu eta sortzea, eta haiekiko estimulo, gozameneko eta intereseko jarrerak garatzea.
5. Irakurri eta idaztearen erabilera sozialak ulertzen hasi, haien funtzionamendua aztertu eta komunikatu, informatu eta gozatzeko tresna gisa baloratzea.
6. Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.
7. Curriculumeko beste hizkuntzak ahoz erabiltzen hastea ikasgelan komunikatzeko, eta komunikazio trukatzeko horietan parte hartzeko interesa eta atsegina izatea.

Helburuak zehaztuta, derrigorrez landu beharreko edukiak azaltzen dira. Bertan, lau multzo nagusi daude; Hitzeko hizkuntza, ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hizkuntza, arte hizkuntza eta gorputz hizkuntza. Lan hau ahozko produkzioari eta garapenari begira dagoenez, honako edukiak hartuko ditugu kontuan:

1. multzoa. *Hitzeko hizkuntza.*

1.1. Entzun, mintzatu eta solas egitea

- Eskolan eta gizartean erabiltzen diren ahozko testuen ideia orokorra ulertzea.
- Curriculumeko beste hizkuntzen ahozko testuen ideia orokorra ulertzea, ikasgelako eguneroko egoeretan eta gai ezagun eta arruntei buruz hitz egiten denean:
 - Arretaz entzutea.
 - Curriculumeko hizkuntzetako adierazpenak eta formulak identifikatu eta haiei erantzun egokia ematea: agurrak, eskaerak, esker ona, gustuko eta lehentasuneko adierazpenak, galderak...
 - Jarraibideak, azalpenak eta kontakizunak ulertu eta eskatzen zaionaren aurrean erantzun egokia ematea (identifikatzea, seinalatzea, jardutea...).
 - Ipuinak modu orokorrean ulertzea. Ulertzen duela modu batzuetan adieraztea, adibidez:
 - Une bakoitzean parte hartzen duen pertsonaiaren marrazkia seinalatzea.
 - Berriz kontatzen direnean akats edo aldaketa nabariak antzematea.
 - Pertsonaia batek esan behar duen esaldia aurrez esan edo gogoratzea.
 - Ipuinaren gaia zein den esatea (ideia nagusia, irakaskuntza...).
 - Pertsonaia bat deskribatzea.
 - Istorioaren bukatu gabeko esaldiak osatzea.
 - Ipuin, poema nahiz kanta labur bateko pertsonaiak identifikatzea. Ahozko kontakizun erraz bateko eszenen segida ezartzea.
 - Ipuin bat kontatzen zaien bitartean emozioak adieraztea (ustekabea, beldurra, poza...).
 - Ipuineko tituluak marrazkiei eta pertsonaiei lotzea.

- Komunikazioko ohiko egoeretan aktiboki parte hartu eta entzutea. Bere enuntziatuak formatu konbentzionaletara gero eta gehiago egokitu eta ikus-entzunezko baliabideen bitartez sortutako ahozko mezuak, testuak eta kontakizunak ulertzen hastea.
- Hizkuntza bidezko trukaketa erregulatzen duten arauak egoki erabili, hitz egiteko txanda errespetatu eta arretaz eta errespetuz entzutea:
 - Solasaldi batean parte hartzea, galdetuz eta entzunez.
 - Ohar egokiak egitea.
- Ahozko hizkuntza gero eta gehiago erabiltzea gertaerak gogoratu eta kontatu, jakintza arloak aztertu, ideiak eta sentimenduak adierazi eta bere eta besteen jokabidea erregulatzeko:
 - Ikasleentzako gertaera garrantzitsu baten berri ematea, iraganeko adizkiak erabiliz. Jakin behar du zer gertatu zen (gertaeren denborazko sekuentzia) non gertatu zen eta berarentzat zergatik den garrantzitsua.
 - Gertatu zaion zerbaiten berri ematea lehenbiziko pertsonan, ekintza espazioan eta denboran ongi kokatuz. Beste batek kontatu duenaren berri ematea.
 - Objektu bat deskribatu eta haren deskribapenari esker identifikatzea. Ikusten diren objektuak erkatzea.
 - Zerbait edo norbait non dagoen azaltzea. Toki batera nola joan azaltzea.
 - Jarraibideak, aginduak eta aholkuak ematea.
- Ahozko hizkuntza nola funtzionatzen duen pixkanaka ikasi eta haren alderdi fonikoei eta lexikoei buruzko interesa izatea:
 - Soinuak ezagutu eta identifikatzea. Kontsonanteak eta bokalak.
 - Galderak, baieztapenak eta ezeztapenak bereiztea. Enfasia eta adierazkortasuna nola eta noiz ematen diren jakitea.
 - Enuntziatu egiazkoak, gezurrezkoak edo gehiegizkoak bereiztea.
 - Soinu errepikapenak, errimak, aho korapiloak etab.
 - Bestelako hizkuntzak daudela jakitea, hala nola denak desberdinak direla soinuen, hitzen eta abarren aldetik. Denek komunikatzeko balio dutela jakitea.
- Hizkuntzei buruzko jarrera positiboa izatea.
- Adinaren arabera lexiko egokia, zehatza eta aberatsa eta gramatika egitura egokiak erabili eta doinu egokia eta ahoskera garbia izatea.
- Curriculumeko beste hizkuntzetako elkarrizketetan parte hartzeko interesa izatea, ohiko jardueretan eta komunikazioko egoera arruntetan:

- Curriculumeko beste hizkuntzen sistema fonetikoaz ezagutu eta pixkanaka barneratzea. Hori imitatzea.
- Jorratzen diren gaien eta egoeretako hitzak eta esapideak ezagutzea.
- Ikasgelan, jokoetan, azalpenetan eta abarretan agertzen diren egoeretan moldatzea.
- Abilezia eta prozedura batzuk erabiltzea: errepikatzea, buruz ikastea, hitzak eta esapideak keinuzko eta ikusizko elementuekin lotzea, hizkuntzaren lexikoa, formak eta egiturak ikasteko ereduak ikusi eta imitatzea.

Esan bezala, Haur Hezkuntzako 2. zikloko haurrek lortu beharreko helburu eta edukiak dira hauek; hau da, 3-6 urte bitarteko haurrendako. Hauek lortzen dituztenean eta Lehen Hezkuntzara igarotzen direnean, beste curriculum bat, Lehen Hezkuntzako hain zuzen ere, izango dute abiapuntu.

2. METODOLOGIA ETA DISEINUA

Euskararen garapena aztertzeko Mendigoitiko ikastetxea behatu egin dut. Bertan Haur Hezkuntzako hiru gela daude; bat maila bakoitzean.

Hurrengo orrialdeetan honako hiru atal hauek aztertuko ditut:

Ikasleen euskara maila: maila bakoitzean dagoen maila aztertuko dut, non eta norekin erabiltzen duten aipatuz. Kontuan izan behar da auzoaren kokapena, hau da, Mendillorri eremu mistoa da euskararen aldetik. Honek esan nahi du gehiengoan ama hizkuntza erdara izango dela. Beraz Elizondorekin konparatuz gero adibidez, maila baxuago izanen dute hemen, lehenengo urtea ulermena bermatzea izango baita helburu nagusia.

Lantzen diren egiturak: Egiturak prestatzeko garaian kontutan izan behar da zein den ikastetxearen kokapena. Lehen esan bezala, eremu mistoa da, hau da, erdaldunak eta euskaldunak daude. Hala ere, gehienetan, haur hezkuntzan hasten direnean ez dakite euskaraz, hau da, haien ama hizkuntza erdara da. Horregatik, egiturak planteatzerakoan hori kontuan izan behar da, lehenik eta behin ulermena bermatu behar delako.

Ahozko produkzioa: Behin euskara maila zein den jakinda eta egiturak nola lantzen dituzten jakinda, haien ahozko produkzioak aztertuko ditut, hausnartuz zein izan den izandako garapena eta akats batzuen zergatiak. Beraz, erabiltzen den metodologiaren eraginez sortutako transkripzioak jasoko ditut.

2.1. H.H.ko 1.maila: 3 urtekoen gela.

2.1.1. *Ikasleen euskara maila*

3. taula. 3 urtekoen euskara maila

| IKASLEA | AMA HIZKUNTZA | EUSKARA |
|------------|---------------------|---|
| 1. Ikaslea | Erdara | - Maila: Baxua. Ulermen arazoak ditu, beraz gutxitan aritzen da euskaraz. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituztenean (komuna, mina, etab.) - Norekin?: Irakasleekin |
| 2. Ikaslea | Erdara eta ingelesa | - Maila: Ona |

| | | |
|-------------|--|---|
| | | <ul style="list-style-type: none"> - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen (komuna, mina, etab.) - Norekin?: Irakasleekin |
| 3. Ikaslea | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Ona - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen - Norekin?: Irakasleekin |
| 4. Ikaslea | Erdara eta ingelesa | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona. Hasi da euskaraz hitz egiten(esaldi luzeak) - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta ikaskide batzuekin. |
| 5. Ikaslea | Erdara eta ingelesa | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona. Hasi da euskaraz hitz egiten(esaldi luzeak) - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta ikaskide batzuekin. |
| 6. Ikaslea | Erdara (aitak euskara daki baina gutxitan hitz egiten dio) | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona. Hasi da euskaraz hitz egiten(esaldi luzeak) - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin, ikaskide batzuekin eta gutxitan aitarekin. |
| 7. Ikaslea | Erdara (amak euskara daki baina gutxitan hitz egiten dio) | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Ona. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin eta gutxitan amarekin. |
| 8. Ikaslea | Euskara eta erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da Norekin?: Irakasleekin, gurasoekin eta ikaskide batzuekin. |
| 9. Ikaslea | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Ona. Ulermena oso ona dauka baina arazoak ditu hitz egiteko garaian barneko arazo bat dela eta. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 10. Ikaslea | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Ona. Ulertzen du baina ez du hitz egiten. Mutismo selektiboa. - Noiz?: Ez du hitz egiten. - Norekin?: Ez du hitz egiten. |
| 11. Ikaslea | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona. Ulermen ona dauka eta euskaraz hitz egiten hasi da. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 12. Ikaslea | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Maila: Oso ona. Ulermen ona dauka eta euskaraz hitz egiten hasi da (bakarrik ondo esan behar duela ziur dagoenean) - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituenen eta galdera |

| | | |
|-------------|---------|--|
| | | zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 13. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona. Ulermen ona dauka eta euskaraz hitz egiten hasi da. Kontuan izan behar da euskarazko haur eskola batean egon dela. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzten eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 14. Ikaslea | Erdara. | - Maila: Ona. Ulermen ona dauka eta euskaraz hitz solteak esaten ditu. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzten eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 15. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona. Hasi da euskaraz hitz egiten(esaldi luzeak) - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzten. - Norekin?: Irakasleekin |
| 16. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona. Hasi da euskaraz hitz egiten(esaldi luzeak) - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzten eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin. |

2.1.2. Lantzen diren egiturak:

Esan bezala, hasieran gehiengoek ez dute euskaraz ulertzen eta hori izaten da helburu nagusia, ulermena bermatzea. Horretarako oinarrizko galdegaiak lantzen dira:

- Non ... ? - Norekin ... ? - Nora ... ? - Nondik ... ?
- Zertarako ... ? - Nor/k ... ? - Norena ... ?

Hala ere, ikasteko eta ulertzeko mintzamenerako gaia esanguratsua izan behar da haienentzat, haiek gustuko eta hurbil daukaten testuinguru batekin erlazionatu behar da. Horretarako, gai bakoitzaren bidez egitura ezberdinak lantzen dira:

4. taula. 3 urtekoen egiturak

| HILABETEA | GAIA | EGITURAK |
|---------------------|--------------|--|
| Iraila eta Urria | Egokitzapena | Egitura hauek kurtso osoan zehar landuko dira: - NOR zara zu? - NON dago (gelakideren bat)? - NORA goaz? - NOREKIN etorri / joango zara? |

| | | |
|-----------|------------------|---|
| | | <p>- NORENA da?</p> <p>- (Klasekideren bat) etorri da? / (Izena) ez da etorri.</p> |
| Azaroa | Etxea-eskola | <p>Hizkuntzaren aldetik etxeko eta eskolako hiztegia lantzen da; etxeko gelak, gelako materialak, txokoak, jantokia, patioa, etab.</p> <p>Horrekin erlazionatuz, honako egiturak lantzen dira;</p> <p>- Non ... ?</p> <p>- Zertarako ... ?</p> <p>- Norekin ... ?</p> <p>- Nora ... ?</p> <p>- Norena ... ?</p> <p>- Nondik ... ?</p> |
| Abendua | Udazkena | <p>Aurreko egiturekin jarraitu eta honi garrantzia eman:</p> <p>- (Izena) etorri zara?</p> <p>- Bai, etorri naiz. / Ez, (Izena) ez da etorri</p> |
| Urtarrila | Olentzero | <p>Aurreko egiturak eta honako hau gehitu:</p> <p>- Zer eskatu diozu Olentzerori?</p> <p>- eskatu diot</p> |
| Otsaila | Inauteriak | <p>Egitura berria:</p> <p>- Zertaz mozorratuko zara?</p> <p>--z mozorratuko naiz.</p> <p>Nahiz eta hau ezagutzen duten hilabete honetan indartuko da:</p> <p>- NOREKIN etorri zara?</p> <p>- -rekin etorri naiz.</p> |
| Martxoa | Gu ere artistak! | <p>Hilabete honetan egitura hau landuko da bereziki:</p> <p>-NOLA etorri zara eskolara?</p> <p>- -Z etorri naiz.</p> |
| Apirila | Etxeabereak | <p>Apirilean, etxabereen gaia landuz, honako egitura landuko da:</p> <p>- Zein animalia gustatzen zaizu?</p> <p>- Zergatik?</p> <p>- handia } txikia } (e)LAKO polita }</p> |
| Maiatza | Euskal musika | Aurreko egiturak lantzen jarraitu. |
| Ekaina | Zentzumenak | <p>Aurreko egiturak eta berri bat gehitu:</p> <p>- Zertarako ditugu begiak / eskuak / belarriak ...</p> <p>- UsaintzEKO / IkustEKO / UkitzEKO</p> |

Nahiz eta egunean zehar ahozketasuna lantzen den, kolektibak (alegia, asanbladak) izaten dira gehien sakontzen den momentua. Egunero galdera bat proposatzen da, makinistek haur bakoitzari galdetu eta modu honetan haurrek egunero esaldiren bat esaten dute euskaraz. Hasieran gerta liteke haurrek galdera ez ulertzea baina erantzunaren laguntza eta testuinguruarekin erlazionatuz barneratzen dute.

Hala ere, beti galdera bera ez errepikatzeko eta erantzuna buruz ez ikasteko, hainbat solasalditarako gaiak proposatzen dira:

Egunerokoak:

Goizean:

- Norekin etorri zara? ---REKIN etorri naiz.
- Nola etorri zara? ---Z etorri naiz.
- Zer gosaldu duzu gaur?

Eguerdian:

- Nola / norekin joango zara etxera?
- Nora joango zara bazkaltzera? – Etxera / jantokira joango naiz.
- Nor etorriko da zure bila?

Arratsaldean:

- Zer bazkaldu duzu?
- Zer egingo duzu eskolatik irteterakoan?
- Nor etorriko da zure bila?

Eguraldia:

- Zein eguraldi dugu gaur?
 - Eguraldi ona / txarra dago.
 - Eguzkia / hotza / lainoturik dago.
 - Euria ari du / elurra botatzen du.

Zerrenda, faltak

- Guztiok etorri gara?

eta gaixotasunak:

- Nor falta da?
- Zenbat lagun geratu dira etxean?
- Zergatik ez da etorri (Izena)? – Gaixorik dagoeLAKO

- Jolasgaraia eta gatazkak: - Zer egin duzu patioan?
- Norekin / zertan / non egin duzu jolas?
- Nola pasa duzue?
- Jantziak eta itxura: - Zer jantzi duzu?
- Nolakoak / zein koloretakoak dira (Izena)-ren galtzak?
- Norena da beroki hau?
- Ekarritakoak: - Zer ekarri duzu?
- Zer / zertarako / nolakoa da hori?
- Zerezkoa da zure ogitartekoa?
- Asteburuak eta oporrak: - Nora joan zinen asteburuan / oporretan?
- Zer egin zenuen asteburuan / oporretan?
- Norekin joan zinen?
- Senideak eta adiskideak: - Nortzuk bizi zarete etxean?
- Non bizi zarete?
- Zure anaia handia edo txikia da?
- Nola du izena zure amak / aitak / anaiak ... ?
- Urtebetetzeak eta adinak: - Gaur noren urtebetetzea da?
- Zenbat urte betetzen dituzu?
- Hemengo zenbatek dituzte 4 urte?
- Zer oparitu dizute?
- Zauriak eta minak: - Zer gertatu zaizu?
- Zer duzu eskuan / oinean ... ?
- Nongo duzu mina?
- Festak: Olentzero, inauteriak, etab. : - Zer eskatu diozu Olentzerori?
- Nori ekarriko dio panpina / baloia / puzzlea?
- Zertaz mozorratuko gara?

2.1.3. Ahozko produkzioa

- 3 urtekoen transkripzioak:

Esan bezala, 3 urteko ahozko produkzioak oso mugatuak dira, izan ere hizkuntza berria delako haietako gehienentzat. Hala ere, bildu ditudan transkripzio hauen bitartez, ulermen maila ona daukatela ondoriozta daiteke, haien hurrengo pausua arazorik gabe mintzatzea izango litzateke.

Ondorengo hau astelehen goiz batean hartu nuen, asteko lehenengo asanbladan. Bertan bakoitzak kontatu behar zuen asteburuan egindakoa:

- Egunon!
 - Baita zuri ere!
- Zer moduz pasa duzue asteburua?
 - Ongi!
 - Un día era fiesta.
 - Ongi! Egun asto(asko)!
 - Gaur ez.
- Zer egin duzu asteburu honetan?
 - Pues ... kolumpioan ... amatxo, aita, Luna ...
 - Kolunpioetara amatxo eta aitaxorekin.
 - Emmm ... kolunpioetara joan nintzen.
 - Parkera. Amataxorekin.
 - Eh ... kolunpioran joan nintzen aitarekin.
 - Umpioetara (kolunpioetara), Aitor tambien estaba en parque.
 - Eh ... futbolean amataxorekin, aqui.
 - Geratu etxean.

Jarraian datorrena astearte goiz batean bildutako elkarrizketa bat da, irakaslea eta ikasleen artekoa:

- Zer moduz egin duzue lo?
 - Ongi!
 - Oni! (ongi)
 - Ongi!
- Nork egin du lo gurasoen ohean?
 - Ni nire ohean.
 - Nire ohean (ohean)
 - Es que un día fue ... sabes?
- Baina zergatik Mikel?

- Porque si ... bai ... y el aita iba conmigo.
- Baina non egin zenuten lo?
- Aita nire ohera lo egin.

Gorputzaren lanarekin lanean zeudela honako galderak egiten zituzten ikasleek haien artean:

- Iranzu, zertarako ditugu sudurra?
 - Usaintzeko
 (Lurrina ateratzen du irakasleak denek usaintzeko)
 - A mi me parece que es tolonia!
 - Usaintzeko da.
- Jon, zertarako ditugu oinak?
 - Korrika!
 - (Mikel): Edo tambien saltoka!
- Zertarako daukagu sabela Adei?
 - Janaria txikitzeko.
 - (Iranzu): Eta ere purea egiteko!

Makinista zerrenda pasatzen ari zela, “Zer jantzi duzu gaur goizean?” galdetu zion bakoitzari:

- Pues ... txaketa urdina jantzi ditut.
- Kamiseta bat, laranja.
- Kamiseta laranja jantzi dut.
 - Jantzi duzu.
 - Bai, jantzi dut.
- Mediak futbolean. (futboleko mediak)

Azkeneko hau, aldiz, ostiral bateko asanbladako elkarrizketa da, asteburuari buruz ari ziren:

- Zer egingo duzu asteburu honetan?
 - Pues ... asko festa ... eehh ...parkera (joango naiz)
 - A casa de Andoni. Esparzara joango naiz.
 - Hoy voy a ir a Olondrizera.
 - Parkean joango naiz.
 - Nose ... jolastera ... aunque hay partido y no se ...
 - Jolastu Yerairekin ... eta Estellara!
 - Ehh ... Olondrizera jolastera. Ahizparekin.
 - Kolunpioetara joango naiz.
 - Joango naiz Ilunberrira.

- Eehh ... amatxorekin, aitatxorekin eta Julenekin egongo naiz.
- Leirerekin jolastu.

Eskola garaian bildutako esaldi solteak:

- Nik pisa eta labatu ejkuak.
- Hoi nirea da.
- Eta nik bai = (nik ere bai)
- Oie nire eskua.
- Vamos a ir a la escuela de abajo autobusez.
- Ez nahi dut gehio.
- Zer egiten dute zezenek?
- Bakarrrik pintxatu.
- Orain al jantokira? Ni ez! Zu bai al jantoki.
- Falta dugu bat, Aitana ez da etorri.
- Eta Aitana ez da etorri
- Ekiñe goizean
- Vamos a salir al patio?
 - Nola da euskaraz?
 - Vamos a salir al patiora?
- A que ni daukat, Maitane, A eta ZA? ("Z". bere izenean. Olatz.)
- Se me ha botau (erori zait)
- Cuando vamos a komunera / patiora?
- Hori rollo bat da (iragarkia)
- Orain lana del makinista
- A que dira Asier eta Ekiñe? Bai bai
- A (letra)! Arkaitzena eta Adeirena.
 - Eta sagarra du
 - Nirea da.
 - Y eta nirea.
- Oso luzea da Iranzu (Izenaren luzeera)
 - Zein da luzeagoa?(Iranzu edo Asier)
 - Iranzurena
- Bost. Ena (dena) estua (eskua). (esku osoa).
- Pero bost eta bost son sei...
- Pero no lo pierdas eeh!
 - Euskaraz.
 - Ez galdu Mari Jose.
- Autobusez joango gara. Nora?
 - Fiestara.
- Hagaria (haragia)
- Hoy me toca sukalde txokoan.
- Tienes el pelo pintado de gorria.
- Y yo quiero ir al patiora.
- Nik ez dut nahi pixa egin.

Ipuin bati buruz mintzatzen zeudela ...

- Eta da kolorekoak
- Eta bat da behea (haurra)
- Hori ez du egin (dugu)
- Hori da aitona.
- Haserre denak denak denak
- Enfadatu da! Haserre!
- Dago haserre
- Ez dut ikusten
- Bat triste dago.
- Eta bat dago lotan

2.2. H.H.ko 2.maila: 4 urtekoen gela.

2.2.1. Ikasleen euskara maila

5. taula. 4 urtekoen euskara maila

| IKASLEA | AMA HIZKUNTZA | EUSKARA |
|------------|---|--|
| 1. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzenean eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin eta aitarekin. |
| 2. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzenean. - Norekin?: Irakasleekin eta zenbait ikasleekin. |
| 3. Ikaslea | Erdara | - Maila: Baxua. Ulermen aldetik ondo baina adierazpen mugatua. - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzenean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 4. Ikaslea | Erdara | - Maila: Ona. Ulermen oso ona baina adierazpen txarra. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzenean eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin |
| 5. Ikaslea | Erdara eta errusiera (aitak euskara daki baina gutxitan hitz egiten dio) | - Maila: Ona. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzenean eta galdera zuzenak egiten zaizkionean. - Norekin?: Irakasleekin eta gutxitan aitarekin. |
| 6. Ikaslea | Erdara | - Maila: Ona. - Noiz?: Beharrak adierazi behar dituzenean eta galdera zuzenak egiten zaizkionean - Norekin?: Irakasleekin. |
| 7. Ikaslea | Euskara eta ingelesa | - Maila: Oso ona. - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzenean. - Norekin?: Irakasleekin, amarekin eta zenbait ikaslerekin. |
| 8. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzenean. - Norekin?: Irakasleekin eta zenbait ikasleekin. |
| 9. Ikaslea | Erdara eta euskara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituzenean. |

| | | |
|-------------|--|---|
| | | - Norekin?: Irakasleekin eta aitarekin |
| 10. Ikaslea | Erdara eta euskara | - Maila: Oso ona. - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakaslearekin, aitarekin eta zenbait ikasleekin |
| 11. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta zenbait ikaslerekin. |
| 12. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin, aitarekin eta zenbait irakaslerekin |
| 13. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 14. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona. - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin, amarekin eta zenbait ikaslerekin |
| 15. Ikaslea | Erdara (aitak euskara daki baina gutxitan hitz egiten dio) | - Maila: Oso ona - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta gutxitan aitarekin |

2.2.2. Lantzen diren egiturak:

6. taula. 4 urtekoen egiturak

| HILABETEA | GAIA | EGITURAK |
|-----------|----------------------------------|--|
| Iraila | Egokitzapena – Kiriko Oilarra | Egiturak birpasatu: - NORENA da? NIREA / ZUREA da - Etorri zara? Bai, etorri naiz / Ez, ez da etorri - NON dago ... ? Hemen / Hor / Han - NORA goaz?-ra goaz - NOREKIN etorri zara?-rekin etorri naiz - NONDIK ... ? - ZERTARAKO ... ? - NORK ... ? - NOR ... ? - NOLA ... ? |

| | | |
|--------------------|--------------------|--|
| | | <ul style="list-style-type: none"> - NONGOA ... ? - ZERGATIK ... ? |
| Urria | Vivaldi | <p>Lehen aldia erabiltzen hasi:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jaio / bizi / hil ZEN - NONGOA zen (Vivaldi)? - NONGOA zara zu / gara gu? |
| Azaroa | Iruñeako konpartsa | <p>Lehen aldiarekin jarraitu eta ordenaren antolatzaileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengoak erraldoiak joaten ziren ... Lehenengo, ondoren, gero, etab. <p>Deskribapenak egiten hasi (erraldoienak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Koroa duen erraldoia erregea / erregina da. - Turbantea duen ... |
| Abendua | Olentzero | <p>NOR-NORI-NORK landu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ZER eskatu dio (Izena)+K olentzeroRI? - Zer eskatu diogu olentzerori gelarako? |
| Urtarrila | Robot bat | <p>Olentzeroren gaiarekin amaitu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer ekarri dizu Olentzerok? Olentzerok ekarri dit. |
| Otsaila | Inauteriak | <p>Nafarroako pertsonaiak landu eta deskribatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - NONGOA da (pertsonaia)?KOA da. - NOLAKOA da bere janzkera? - Ziripot Lantzekoa da eta ... |
| Martxoa | Gorputza | <p>Gorputza aztertu haien artean konparatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nik begi urdinak ditut, eta zuk? - Ez, nik ez ditut begi urdinak, marroiak baizik. - Ni zu baino altuagoa naiz. |
| Apirila | Igelak | <p>Zapaburuetatik igeletara: prozesua behatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>Hasieran</u> arrautzetan zeuden, <u>ondoren</u> zapaburuak ateratzen dira eta hankak atera <u>eta gero</u>, igel bihurtzen dira. |
| Maiatza eta Ekaina | Euskal Mitologia | <p>Pertsonaien deskribapenak landu</p> <p>Espazioa landu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Noren ondoan / artean / atzean ... - Joan baino lehen - Egin eta gero / ondoren ... |

Aurreko mailan bezala, H.H.ko 2.mailan ere, hainbat solasalditarako gaiak aurkezten dira. Gai berdinak izanda ere, kontutan izaten da konplexutasuna galderak proposatzerakoan:

- Egunerokoak: Goizean:
- Zer gosaldu duzu?
 - Basokada bat esne/kolakao hartu dut.
 - Beste egunetan zukua gosaltzen dut baina gaur ez nuen gogorik.
 - Zer egin duzu eskolara etorri aurretik?
 - Goizetan telebista ikusten dut.
 - Aurpegia eta eskuak garbitu ondoren etxetik ateratzen naiz.
- Eguerdian:
- Nork eramango zaitu etxera / jantokira?
 - Zer nahiago duzu haragia ala arraina?
 - Niri haragia, arraina baino gehiago gustatzen zait.
- Arratsaldean:
- Hemendik ateratakoan zer egingo duzu?
 - Ni ez naiz parkera joango, etxera baizik.
 - Parkean nire lagunekin egingo dut jolas.
 - Arratsaldean amonaren etxera joango naiz askaltzera.
- Eguraldia: - Gaur eguraldi epela dugu.
- Eguraldi ona egiten duenean ...
 - Atzo ez zuen hotzik egin, beroa baizik.
 - Atzo ez ginen etxetik atera euria ari zuelako.
- Zerrenda, faltak - (Izena) beharbada gaixorik dago.
- eta gaixotasunak: - Aspalditik ez da (Izena) etorri ...
- Nik badakit non dagoen / zer duen / zergatik ez den etortzen.
 - Gaixotzen naizenean amona etortzen da ni zaintzera.
 - Bihar ez naiz etorriko medikuarengana joan behar naizelako.
- Jolasgaraia eta - Baloia kanpora erori zait.
- gatazkak: - Hamaiketako hartzea ahaztu egin zait.
- Amaiari kromoak kendu dizkiote.
 - Nik ikusi dut nor izan den.

- Jantziak eta itxura: - Nork jantzi zaitu?
 - Bai polita dela daramazun gona.
 - Nik ez dut gonarik eramaten gustuko ez ditudalako.
 - Alkandora (edozein jantzi) marraduna (izenondoa) daramazu.
- Ekarritakoak: - Nork prestatu dizu ogitartekoa?
 - Noiz jango duzu?
 - Patioko ordua iristen denean jango dut.
 - Norentzat / zertarako ekarri dituzu kromoak?
- Asteburuak eta oporrak: - Nola joango zarete herrira larunbatean?
 - Zer egingo duzue asteburuan?
 - Nork eramango zaituzte kotxez?
- Senideak eta adiskideak: - Zenbat urte du zure anai txikiak?
 - Nongoa / zein herritakoa da zure ama?
 - Non egiten du lan zure aitak?
 - Aitak etxean egiten du lan.
- Urtebetetzeak eta adinak: - Zenbat egun falta dira zure urtebetetzea izateko?
 - Bi egun falta dira nire urtebetetzeerako.
 - Zer egin zenuten urtebetetze festan?
 - Ni nire anaia baino zaharragoa naiz.
- Zauriak eta minak: - Nola hartu duzu min hori?
 - Zer gertatu zitzaizun?
 - Txirristatik erori nintzen.
 - Hazkura ematen dit.
- Festak: Olentzero, inauteriak, etab. : - Nondik / nola etortzen da Olentzero?
 - Laster / bihar Olentzero etorriko da.
 - Zer ekarriko dizu Olentzerok?
 - Zer ekarri zizun Olentzerok?
 - Trena, panpina eta baloi bat ekarri zizkidan.

2.2.3. Ahozko produkzioa

- 4 urtekoen transkripzioak:

Ondoren ikusten den bezala, 4 urtekoen produkzioak luzeagoak dira. Akats asko egiten dituzte baina oso nabaria da garapen handia izan dutela 3 urtekoekin konparatuz. Hauek jada esaldiak osatzeko gaitasuna daukate, nahiz eta oraindik erdarazko hitzak sartu.

Ondorengo hau astelehen goiz batean hartutako elkarrizketak dira. Bertan bakoitzak kontatu behar zuen asteburuan egindakoa:

- Zer egin duzu asteburu honetan?

- Egin nuen mina zangoan. Agarratu nuen makila eta ...
- Ni parkean jolastu dut (nuen).
- Jolastu dut (nuen) Mikelekin futbolekin.
- Parkean jolastu nire amatxorekin.
- Bizikletarekin paseoan amatxorekin.
- Joan naiz amarekin eta Maiarekin ur parkera. Orain dela asko Mendillorri zen ura. Ikusi dut bideo bat eta ikusi dut benetako ura.
- Mendia joan naiz eta zegoen kaballitoak.
- Jolasten amonarekin futbolarik.
- Ni joan nintzen etxera Irunekoa (Iruneren etxera). Eta pues ... jolastu ginen a papas y a mamas.
- Es que zen Marioren urtebetetzea. Pues ospatu primoarekin eta gero ere beste primoarekin eta ere zen Enekoren urtebetetzea.
- Peskatu nuen arraina baina ez zuen pikatu. Oriora peskatzera.
- Joan nintzen piszinara eta joan nintzen aitarekin eta nire anaiarekin. Eta amarekin eta Norarekin ez zeren zegoen gaixorik.
- Joan nintzen Lerinera. Emm ... jolastu plazan, Lerineko plazan.

Hurrengo esaldi hauek klasean solte entzundakoak dira:

- | | |
|---|--|
| - Nire ahizpa eta ni esnatu gara ordu misman. | - Ikusi dut Eneritz autobusa. |
| - Nik daukat osasunakoa | - Ni daukat primo bat que da txiki txikia. |
| - Eman zuen krema solekoa | - Nire amona deitzen da Asun. |
| - Si ez da isiltzen, Begoña hasarretuko | - Nik daukat zazpi prima |
| | - Da itsasontzia zergatik dauka bandera. |

- da.
- Mikel ez egin du pisa
 - Nora joan dira? Trabajatzer
 - Zergatik idatzi duzu arkatzez? Zergatik konfunditu borratu
 - Behar dut hartu hori.
 - Mikel empujatu niri
 - Gaur noren da urtebetetzea?
 - Ez nahi dut jantokira.
 - Azkena apirilaren eguna.
 - Txokora joaten naizenean ez dakit zer jolastuko dudan.
 - Zergatik euria egiten ari du?
 - Ez diozu jartzen piraten hori, eskudoa?
 - Irune ez utzi Anerena.
 - Es que da oso dificil moztu.
 - Ikusi diot Juana Mariri
 - Ez nahi dut idatzi gehiago.
 - Es que jo didate castellanokoek.
 - Zertarako egin duzue? Jartzeko itsasoan
 - Ni bizi dut Erripagainan.
 - Ni joan nintzen egun batean zirkora.
 - Atzo joan genuen eskursiora.
 - Daude uran monedak, dineroak.
 - Nik daukat bost urte.
 - Nire aita da amerikano.
 - Zegoen mariposa bat.
 - Loreak gustatzen zait.
 - Si kontatzen dizugu, hasarretuko zara.
 - Ura behar dugu bota.
 - Kansatu naiz
 - Ni bezala hauek daukat.
 - Nik andatu Noain asko.
 - Nahi dut margotu lore bat.
 - Ez egiten du ni kaso.
 - Esan du Arantxak ke berdin du mantala ez daukat.
 - Nik subitu dut puntara

2.3. H.H.ko 3.maila: 5 urtekoen gela.

2.3.1. Ikasleen euskara maila

7. taula. 5 urtekoen euskara maila

| IKASLEA | AMA HIZKUNTZA | EUSKARA |
|------------|---------------|--|
| 1. Ikaslea | Erdara | - Maila: Baxua. Gehienetan ulertzen du baina ez beti eta adierazpen maila oso baxua da bere adinerako. - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen baina ez beti. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 2. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta ikasleekin. |
| 3. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona. - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 4. Ikaslea | Erdara | - Maila: Ona. - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. |

| | | |
|-------------|--------------------|--|
| | | - Norekin?: Irakasleekin. |
| 5. Ikaslea | Erdara | - Maila:Ona - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 6. Ikaslea | Erdara | - Maila:Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin, ikasleekin eta batzuetan aitarekin. |
| 7. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona. - Noiz?:Beti saiatzen da - Norekin?:Irakasleekin, ikasleekin eta gutxitan amarekin. |
| 8. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin, ikasleekin eta amarekin. |
| 9. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 10. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. -Norekin?: Irakasleekin eta ikasleekin |
| 11. Ikaslea | Erdara | - Maila: Ona - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin. |
| 12. Ikaslea | Euskara | - Maila: Oso ona -Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin, ikasleekin eta gurasoekin. |
| 13. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. - Norekin?: Irakasleekin eta zenbait ikasleekin. |
| 14. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin, ikasleekin eta amarekin. |
| 15. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin eta ikasleekin. |
| 16. Ikaslea | Erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenen. -Norekin?: Irakasleekin eta ikasleekin |

| | | |
|-------------|--------------------|--|
| 17. Ikaslea | Erdara | - Maila:Oso ona - Noiz?: Klasean dagoenean saiatzen da, galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenean. - Norekin?: Irakasleekin eta zenbait ikasleekin. |
| 18. Ikaslea | Euskara eta erdara | - Maila: Oso ona - Noiz?: Beti saiatzen da - Norekin?: Irakasleekin, ikasleekin eta amarekin. |
| 19. Ikaslea | Erdara | - Maila: Ona - Noiz?: Galdera zuzenak egiten zaizkionean eta beharrak adierazi behar dituenean. - Norekin?: Irakasleekin. |

2.3.2. Lantzen diren egiturak:

8. taula. 5 urtekoen egiturak

| HILABETEA | GAIA | EGITURAK |
|-----------|----------------------|--|
| Iraila | Erleak | 4 urtetan landutako egiturak birpasatu: NOR, NORK, NON, NORA, NONDIK, NOREKIN, ZER, GAUR, ATZO, BIHAR, ZERGATIK, NORENA ... |
| | | <p>Aurten menderagailuak sakonago landuko dira:</p> <p>Konpletibak lantzen hasi (-LA)</p> <p>- Nik uste dut.....-LA</p> <p>- (Izena)+K esan dit-LA</p> <p>Erleak: deskribapenak lantzen jarraitu.</p> |
| Urria | Bidaiak - Nora goaz? | <p>Gaiari hasiera emateko honako hau landu:</p> <p>- NORA joan nahi duzu?</p> <p>- NON dago.....?</p> <p>- NOLA joango gara?-Z joango gara</p> <p>- NOLA hitz egingo dugu?</p> <p>- NOLA bizi dira bertan?</p> <p>- NOLAKOA da herriko jendea?</p> <p>- ZER ikusiko dugu?</p> <p>- Zer jango dugu?</p> <p>--RA joango BAGINA zer ikusiko genuKE?</p> <p>Ordena landu:</p> <p>-Lehenengo, bigarren, azkenik...</p> <p>-Lehenengo, ondoren, bukatzeko...</p> |

| | | |
|-----------|-----------------------------------|--|
| | | -Joan baino lehen, eta gero... |
| Azaroa | Txapela buruan eta ibili munduan! | Aurrekoarekin jarraitu |
| Abendua | Olentzero datorrela! | - NOLAKO jostailua eskatu diozu Olentzerori? - laz zer ekarri zizun? - Zergatik ekartzen ote dizkigute opariak? Mendeko perpausak: - Txintxoa izan naizen arren, ez dakit nahi dudana ekarriko didaten. |
| Urtarrila | Artista tximista! | - Zein janari duzu gustokoena? - Zein da gehien / gutxien gustatzen zaizun jakia / kolorea / ipuina? - Atzo euria/haizea/hotza egin zuen eta gaur? - Eguraldi ona/txarra egiten badu ... - ezin gara joan ... - ahal gara joan ... |
| Otsaila | Inauteriak | - Nongoa da (EHko pertsonaiak)? -koa da. - Zein da zein baino handiagoa / politagoa / altuena / gaiztoagoa? - hau, beste hau baino-goa da - hau ez da hori bezain,goa baizik. |
| Martxoa | Espaziora goaz! | - Astronauta bat izango bazina-ra joango zinateke. - Ilargira / Saturnora ... joango bazina ... - saltoka ibiliko zinateke. - zeru urdina ikusiko zenuke. |
| Apirila | Uraren egoerak | Juntadurak: - Aurkaritzakoak: · BAINA: Hau gustatzen zait baina ... · BERRIZ: Hau oso polita da, beste hau berriz ... · BAIZIK: Ez gara mendira joan, hondartzara baizik. - Hautakariak: · EDO: Mendira edo hondartzara joan gaitzake. · ALA: Zer zara neska ala mutila? Menderagailuak: - Denborazkoak: · Lagunak ikusten ditudanEAN ... · Bakarrik nagoenean ... · Amatzok / aitatzok afaria prestatzen duen bitartean |

| | | |
|-----------------------|---------------------|--|
| | | ... |
| | | · Klasera etorri baino lehen / eta gero ... |
| | | - Konparaziozkoak: |
| | | · -AGO: Ni zu baino altuagoa naiz. |
| | | · -EGI: Goxokiak goxoegiak dira. |
| | | · - ENA: Ni klaseko altuena naiz. |
| | | · Ni zu BEZAIN altua / azkarra naiz. |
| | | · Nik zuk ADINA / BESTE dirua / urte daukat. |
| Maiatza eta Ekaina | Ospitalean gaude | Aurrekoarekin jarraitu. |

H.H.ko 3.mailan ere, aurreko mailetan bezala, hainbat solasalditarako gaiak daude konplexutasuna kontutan hartuz:

Egunerokoak:

Goizean:

- Zer pentsatzen duzu ohetik altxatzean?
 - Ohetik altxatzen naizenean "hau alperkeria" pentsatzen dut.
- Nork aukeratzen ditu janzten dituzun arropak?
- Nor da etxetik ateratzen den lehenengoa?
 - Aita ni baino lehenago lanera joaten da.

Eguerdian:

- Zure etxera joaterakoan nondik pasatzen zara?
- Nork prestatzen dizue bazkaria etxean?
- Zer gustatuko litzaizueke gaur bazkaltzea?

Arratsaldean:

- Nora joango zinateke eskolatik irtetean?
- Zer egiten duzue ohera joan aurretik?
 - Lotara joan baino lehen gurasoei muxu bana ematen diet.

Eguraldia:

- Eguraldi ona/txarra egiten baldin badu ...
- Atzo ez zuen euririk egin
- Goizean eguraldi txarra atera da, arratsaldean aldiz / berriz ona aterako da.

Zerrenda, faltak

- Zer uste duzue gertatu zaiola (lzena)-ri?

eta gaixotasunak:

- Baliteke buruko mina izatea

- Agian medikuarengana joan da.
 - (Izena) ez da oraindik etorri, auskalo etorriko den, beti berandu dabil!
 - (Izena)k ez du etortzerik izan, medikuarengana joan delako.
 - Zer egin zizun medikuak?
 - Medikuak sabela (gorputz atala) begiratu zidan.
- Jolasgaraia eta gatazkak:
- Zer gertatu zaizue?
 - (Izena)k harramaska egin dit
 - Berak jo egin nauenez, nik itzuli egin diot.
 - Zer egin duzu patioan?
 - Jolastokian egon garen bitartean gauza asko egin dugu: Lehendabizi ... gero ... azkenik ...
 - Sokasaltoan ibili gara, nik saltatzen nuen bitartean, (Izena)k sokari ematen zion, eta gero alderantziz.
- Jantziak eta itxura:
- Loredun / motadun / kremaileradun soinekoa darabil soinean (Izena)k.
 - Panazko / artilezko / larruzko galtzak ditu ...
 - Begira zein itxura beldurgarria / dibertigarria dudan hortz hauekin.
- Ekarritakoak:
- Zergatik erakutsi nahi / behar diguzu?
 - Baloi berria dudanez ...
 - Utzidazu ikusten! / Pasaidazu ikusteko!
- Asteburuak eta oporrak:
- (Egondako lekuen deskripzioa egin daiteke).
 - Jaia denez / zenez ez gara / ginen eskolara etorriko / etorri.
 - Aparteko zer edo zer egin / egingo duzue?
 - Zergatik ez zen (Izena) joan?
 - Gelako lagunik ikusi al duzu / zenuen?
 - Nora joatea gustatuko litzaizuke?
 - Parisera joatea gustatuko litzaidake.
- Senideak eta adiskideak:
- Nolakoa da zure ama / aita / ahizpa ... ?
 - Lagun berririk egin al duzu?

- Nire anaia bezalakoa /bezain txikia banintz, seaskan lo egingo nuke oraindik.

Urtebetetzeak eta adinak: - Noiz beteko dituzu urteak?
 - Bi egun barru bost urte beteko ditut.
 - Datorren hilabetean beteko ditut.
 - Nire gelako gazteena / zaharrena naiz.
 - Atzo bost urte nuen, gaur berriz sei.

Zauriak eta minak: - Norengana jo zenuen zauria garbitzeko?
 - Nola / noiz atera zaizu ubeldura hori?
 - Erle / eltxo batek eztena sartu / koska egin zidan.
 - Tontakeriak egiteagatik erori da / zen.

Festak: Olentzero, inauteriak, etab. : - Datorren urtera arte ez gara eskolara etorriko.
 - Opariak utzi / ipini / jarri bezain laster azkar / laster alde egiten dute erregeek.
 -Ez, alde egin baino lehen, kafea hartzen dute.
 - Nolako panpina eskatu duzu / diozu / diezu?
 - Batzuek eguberriak etxean pasako ditugu, beste batuek berriz / aldiz kanpora aterako dira.

2.3.3. Ahozko produkzioa

- 5 urtekoen transkripzioak:

Gela honetan beste era batean egiten dute. Makinistak haur bakoitzarentzako galdera bana pentsatzen du. Araua erantzun luzeak probokatzea da:

- Zer esan dizu amatxok etxetik atera zarenean?
 - Etxetik atera naizenean amatxok esan dit ... eeeh ... ezer esan dit nire amatxok.
- Nola etorri zara?Zergatik?
 - Pozik. Zergatik gaur etorriko da nire amona bazkaltzera.
- Non gosaldtu duzu gaur goizean jaiki zarenean?
 - Sukaldean. Gaur goizean jaiki naizenean gosaldtu dut sukaldean.
- Zer esan dizu amatxok ohetik jaiki zarenean?
 - Ezer. Ez dit ezer esan.
- Zertara jolastuko duzu patioan eta norekin?

- Jolastu dut Izanekin eta Aimarrekin. Ehhh ... pues elegitzen dute berak!
- Zertara jolastuko duzu txokoan eta norekin jolastuko duzu?
 - Ez dakit. Txokora joaten naizenean ez dakit zer jolastuko dudan.
 - Annerekin. Uste dut Annerekin jolastuko duela (dudala).
- Zer egingo duzu arratsaldean eskolatik atera zarenean?
 - Ezer, ezertara! Eskolatik ateratzen naizenean ez dut ezer jolasten.
- Zer egingo duzu gaur egunean zehar?
 - Inglesa, eh ... joango naiz bazkaltzera eta jolastuko dut patioan. Ehh ... lagunekin jolastuko dut eta ehh ... ezer gehiago.
- Egunaren joan ur biltegira zer egin genuen?
 - Ikusi genuen bideo bat barriorena eta eman ziguten edalontzi bat barriorena.
- Zer da gehien gustatu zaizun gauza?
 - Niri gehien gustatu zitzaidana izan zen barrioren bideoa.
- Ehh ... a ver ... zer uste duzu dela hau (ur zikloaren eskema bati seinalatuz) ?
 - Ehh ... garbitzeko ura.
- Zein da hoberen ezagutzen duzun tokia?
 - Eugi. Es que joan naiz bi aldiz. Eugi ezagutzen dut zeren joan naiz bi aldiz.
- Zer dago Ultzama ibaian?
 - Ehh ... karramarroak, ere bai arrainak, ahateak eta ... ez dakit.
- Nora joaten da Mendillorriko biltegiko ura?
 - Ehh ... etxera, komunean, sukaldera ... ehh ... fuentera, kozinara, fabrikara ...

Esaldi hauek klasean entzundakoak dira:

- | | |
|-----------------------------------|--|
| - Es que Ruben mojaru du gailera. | - Zergatik kanbiatu duzu? |
| - Ni ia llegatu dut. | - Es que pillatu behar dugu. Aimar guri lehoiarekin baina es que ez da etortzen. |
| - Niri ez dit uzten baloia. | - Ni erraten dut que ez, baina bera erraten du que bai. |
| - Ruben ez niri utzi lehoia. | - Es que Ander eman dit sudurra. Es que ez dakit zergatik. |
| - Nahi dute purpurina | - Eh ... bera pasatzen ari zen puertatik eta eman dit sudurran eskuarekin. |
| - Hautsitu du pata bat. | |
| - Nahi dugu trairu kokodriloa. | |
| - Zer bota (erori) da? | |
| - Zuek nahi duzue canbiatu. | |

Gela honetan roboten proiektua landu dute. Ondorioz, kutxak eta material ezberdinak erabiliz, robotak sortu dituzte. “Nola egin duzue robot hau” galderari erantzuten diote:

- Kajak-rekin, kartoiarekin eta rekortatzen. Hau ere pegatu dugu.
- A ver, hau da kutxa, hau ere bai, huevoena, papera guardatzeko, eta hau kaja bat kantinplorarena. (robotaren atalak seinalatuz)
- Zerealako kutxekin eta asko kaja huevorena.
- Eta guek egin dugu kutxa batekin, gero paperarena eta quesitoen kutxa.
- Eta hauek patak komuneko papera enrollatzekoarekin.
- Eta ere bai necesitatu dugu zeloa, eta tubo bat.

Etxera joan aurretik, bakoitzari gehien gustatu zaiona edo arratsaldean egingo dutena kontatu dute:

- Niri gustatzen zait gehien gehien parkea.
- Gustatu zait Irati margotzea aurpegia.
- Gustatu zait jan gailetak.
- Gustatu zait korrika egin zezenarekin.
- Eh ... nik gero joango naiz hinchableak Elorrikoak.
- Niri gustatu zait parke berria etxeak daukalako sartzeko.
- Joango naiz jatera Mirariko herrira.
- Ni nago pozik. Es que joango naiz beste egun batean etxearen Mirari, jolasteko.
- Elorrira joango gara.
 - Zer esan duzu?
 - Gaur joango garela Elorrira!
- Ni orain joango naiz hinchablara jolastera Elorrira.
- Nik zapatillak futbolena konpratuko ditut.
- Ni nago pozik zeren bihar izango da nire urtebetetzea eta joango gara Mirariren pueblora.
- Bihar nago pozik zeren joango naiz Mirariren herrira.
- Gehien gustatu zait da parkea Elorrikoa.
- Gustatu zait Irati margotzea aurpegia.
- Gustatu zait asko jolastea kolunpioan behekoan.

Esaldi hauek ipuin bat irakurri ostekoak dira:

- Irakurri dakitenek irakurri dezakete.
- Azkenean joaten da eskolara eta irakurtzen ikasten du eta kutxa hori irekitzen du.

- Irakurtzea aspergarria izan daiketelako.
- Gauzak irakurri behar ditu. Eskolara joan behar du irakurtzeko.
- Kutxaren bila joango da eta gero irakurri dezake.
- Ez du amaierarik ematen.
- Animaliek esan diote gezurra, animaliek ez diotela laguntzen irakurtzen.
- Animaliak ez badiote laguntzen,, irakurtzen ikasi behar du.
- Joaten da igual eskolara eta badu igual andereño eta laguntzen dio irakurtzen.
- Nahiz eta eskolara joan ez zuen agian irakurriko.
- Igualek kutxa irekitzen bazuen ikasiko zuen irakurtzen.
- Eskolara joaten bada ikasten du eta kutxa irekitzen du.

Eztabaida: Eguzkia izarra al da?

- Eguzkia ez da izarra, puntak ditu, eguzkia izarrak baino punta gehiago ditu.
- Sua daukalako
- Ez da izarra sua daukalako.
- Eguzkiak punta gehiago dituelako, puntuak ikusten ditugu.
- Izarrek bost dituelako, ez zen izarra.
- Izarra da, puntak dituelako.
- Eguzkia borobila da, izarrak ez dira borobilak.
- Borobila handiagoa delako.
- Izarra da puntak dituztelako.
- (Izarrak) pottoloagoak dira (eguzkia baino).
- Zergatik izarra da, puntak desberdinak baldin dira, zergatik izarra bada.
- Ez da izarra, izarrek konstelazioak egiten dituztelako. Eguzkia bat bakarra delako.
- Ez da izarra.
- Ia izarra den edo ez den, izarra berak bai.

2.4. Ariketa motak

Haur Hezkuntzan hizkuntza, euskara kasu honetan, etengabe lantzen da. Edozein jarduera a proposa da lantzeko. Hala ere, nahiz eta egun osoan zehar erabili, badaude ariketa edo jarduera zehatzak hizkuntza lantzeko.

Ipuinak: Ipuina Haur Hezkuntzaren ezaugarri nagusietariko bat da. Hauekin nahiz eta hizkuntza produkzioa ez landu, ulermena lantzeko oso baliagarriak

dira. Hasieran, oraindik ez denean ulermena bermatu, oso garrantzitsua da haiek ezagutzen duten ipuinak kontatzea. Hitzak ulertzen ez dituzten arren, istorioa ezagutzen dute eta pixkanaka pixkana gertaerak eta hitzak erlazionatzen joango dira. Adibidez, oso ohikoa da hasiera batean “Hiru txerrikumeak” edo “Txano gorritxo” haiek irakurtzea, ezagutzen dituztenez, poliki-poliki irakasten joatea.

Honetaz gain, ipuinak aurkezteko sarrerak eta amaierak ikasten dituzte, ipuin guztietan erabiltzen direnak:

“Tilin talan, tilin talan, ipuinaren ordua da. Tik tik tak, tik tik tak, oraintxe hasiko gara: Ipuina entzuteko begiak zabal zabalik, belarriak tente tente, ipurdiak lurrean eta ahoa itxita ...”

“... eta sasi guztien gainetik eta teilatu guztien azpitik zoriontsu bizi izan ziren.”

“... eta plis plas ipuina amaitu da.”


“... egia bada sakelan sar, gezurra bada, atera dadila Mendillorriko plazan.”

“... haiek ondo bizi izan baziren, gu ondo bizi izan gaitezen.”

Kantak: Kantak edo abestiak, olerkiak bezala, oso aproposak dira esaten dutena imitatuz, haien lehenengo produkzioak egiteko. Honetaz gain, abesten den bitartean keinuak erabiliz gero, hizkuntza ere ikasiko dute. Adibidez, gorputzari buruz ari den abesti batean, atala aipatzen duen bakoitzean gure gorputzean seinlatu beharko da:

| | | |
|---|------------------------|-----------------------|
| <i>“O, bugi, bugi, bugi bai.</i> | hau da nire sorbalda, | eta hau da bestea, |
| <i>Paran-pan, pan-pan, pan, hey!</i> | hau da beste sorbalda. | |
| Hau da nire behatza, | <i>O, bugi...</i> | burua beheraka, |
| hau da beste behatza, | Hau da nire hanka, | burua goraka. |
| hau da nire eskua, | | <i>O, bugi...</i> |
| hau da beste eskua. | hau da beste hanka, | Hau da nire begia, |
| <i>O, bugi, bugi, bugi, bugi, bugi, bugi bai.</i> | hau da ipurdia, | hau da beste begia, |
| <i>Paran-pan, pan-pan, pan, hey!</i> | berriz ipurdia. | hau da sudur bakarra, |
| Hau da nire ukondoa, | <i>O, bugi...</i> | hau da aho zuloa. |
| hau da beste ukondoa, | Hau da belarri bat, | <i>O, bugi...”</i> |

Antzezpenak edo antzerkiak: Antzezpenen bidez, umeek adieraz dezakete ezagutzen duten istorioa. Modu honetan hizkuntza modu eraginkorrean ikasiko dute, oso esanguratsua izango baita haientzat. Hasieran irakaslea lagun handia izango da haientzat, narratzailearen papera egin dezake, baina gero, haiek bakarrik egiteko gaitasuna izango dute. Antzerkia graba daiteke nahi dutenean ikusteko, edo komiki bat egin antzezpenean zehar bildutako argazkiekin. Horrela, behin eta berriz ikusi nahiko dute eta gidoia errepikatu, hizkuntza etengabe landuz. Hurrengo hau adibidez, Hiru txerrikumeen antzerkia egin ondoren sortutako komikia da:



1. irudia. Antzerkiaren azala



2. irudia. Hiru txerrikumeak

3. GARAPENAREN AZTERKETA

Behin hizkuntza nola garatzen den aztertuz gero eta haur talde zehatz baten produkzioak aurkeztuta, garapenaren azterketa egingo dut. Behaketa edo azterketa honetan, teoriak dioena eta errealitatean dagoena alderatuko dut. Modu honetan, haurrek pausoz pauso egiten dituzten aurrerapenak ikusiko dira.

Haurren garapena aztertzeko, haurren produkzioak hartuko ditut, euskararen garapenaren etapa edo faseekin konparatzeko.

3.1. H.H.ko 1.maila : 3 urtekoen gela.

9. taula. 3 urtekoen azterketa

| AZTERKETA | HAURREN PRODUKZIOAK | OHARRAK |
|--|---|---|
| Deklinabideak: erabiltzen hasten dira. | -Hoy voy a ir a Olondrizer a . | Bi aldiz deklinatzen du esaldia; erdaraz eta euskaraz. |
| | - Parkera. Am atxorekin . | Hitz solteak esaten ditu baina nora (adlatiboa) eta norekin (soziatiboa) kasu markak ondo erabiliz. |
| | - Baina non egin zenuten lo? - Aita nire oher a lo egin. | Nahiz deklinabideak erabiltzen hasi, inesiboak (non) eta adlatiboak (nora) nahasten ditu. |
| | - Kolunpioet ara joango naiz. | Nora (adlatiboa) kasua ondo erabili du. |
| | - Bihar nora joango gara? - Autobuse z ! - A un parker a ! - ¡ Qué morro! | |
| | -Vamos a salir al patio? - Nola da euskaraz? - Vamos a salir al patior a | Bitan deklinatzen du. |
| | - Vamos a ir a la escuela de abajo autobuse z . | Esaldia erdaraz esaten du baina euskaraz deklinatzen du. Instrumentala. |
| | - Orain al jantokira? Ni ez! Zu bai al jantoki. | Hasieran euskaraz eta erdaraz |

| | | |
|---|---|--|
| | | deklinatzen du, gero erdaraz bakarrik. |
| | - Parkean joango naiz. | Nahiz eta euskal deklinabidea erabili, inesiboa (non) adlatiboaren (nora) ordeztartzen du. |
| | -Autobusez joango gara. Nora? - Fiestara. | Nora (adlatiboa) kasu marka erabiltzen du. |
| | - Jolastu Yerairekin ... eta Estellara! | Norekin (soziatiboa) eta nora (adlatiboa) kasu markak erabiltzen ditu. |
| Izen sintagma | - Ze fruta ekarri duzu gaur? - Begira, platano! - Ni sagarra ekarri dut. - Pues ni mandarina | IS sinpleak erabiltzen dituzte: izenak edo izenordeak. |
| | - Hoi (hori) nirea da | Izenordea |
| | - Kamiseta bat, laranja. | Izena |
| | - Kamiseta laranja jantzi dut. | Konplexuagoa. Izenondoa (laranja) aipatzen du. |
| | - Pues ... txaketa urdina jantzi ditut. | Izena + izenordea. |
| | - Hori da aitona . | Izena |
| Aditza: Aspektua (-tu, -(z)en, -tuko) garatua dago. | - Zer egin duzu asteburu honetan? - Geratu etxean. | Aditz partizipioa |
| | - Pues ... txaketa urdina jantzi ditut . | Aditza erabiltzean singularra eta plurala ez du bereizten |
| | - Emmm ... kolunpioetara joan nintzen . | Iraganeko lehenengo formak azaltzen hasten dira. |
| | - Zertarako daukagu sabela Adei? - Janaria txikitze ko . | Zertarako?...-tzeko |
| | - Nik pisa eta labatu ejkuak (eskuak). | Nahiz eta erdal aditza erabili, egoki jokatzen du. |
| | - Eta Aitana ez da etorri | Ezezko esaldia ondo eratua. |
| | - Ez nahi dut gehio. | Ezezko esaldia orden akatsarekin. |
| | -Pero no lo pierdas eeh! -Euskaraz. - Ez galdu Mari Jose. | Itzultzeko eskatzen zaionean arazorik gabe egiten du. |
| | - Nose ... jolastera ... aunque hay partido y no se ... | Erdarazko esaldia baina aditza euskaraz eta ondo jokatua. |

| | | |
|--|--|--|
| | - Dago haserre. | Sinpleak baina ondo jokatuak. |
| | - Ez dut ikusten . | |
| | - Bat triste dago . | |
| | - Se me ha botado (erori zait) | Euskarazko aditza erabili arren, erdaraz jokatu du (-ado). |
| | - Jon, zertarako ditugu oinak? -Korrika! - (Mikel): Edo tambien saltoka! | Aditz laguntzaileak falta dira. |
| Esaldi elkartuak | - Zer egingo duzu asteburu honetan? - Eeeh ... amatxorekin, aitatxorekin eta Julenekin egongo naiz. | |
| | - Pues ... kolumpioan ... amatxo, aita, Luna ... | Ez du lokailurik erabiltzen. |
| | - Kolunpioetara amatxo eta aitatxorekin | Sinpleenak erabiltzen ditu. |
| | - Parkera. Amatxorekin. | Lokailurik ez. |
| | - Y eta nirea. | Bi lokailu erabiltzen ditu, gazteleraz eta euskaraz. |
| | - A casa de Andoni. Esparzara joango naiz. | Lokailurik ez. |
| | Eta nik bai = (nik ere bai) | |
| | - Nik pisa eta labatu ejkuak (eskuak). | |
| Hitzez hitz, elkarrizketa motako galdera erantzunak. | - Egunon! - Baita zuri ere! - Zer moduz pasa duzue asteburu? - Ongi! - Zer egingo duzu asteburu honetan? - A casa de Andoni. Esparzara joango naiz. | Elkarrizketa jarraitzen du eta nahiz eta dena euskaraz esaten ez jakin, ulertzen du eta euskaraz dakiena erantzuten saiatzen da. Euskara eta erdara txandakatzen du. |

3.2. H.H.ko 2.maila : 4 urtekoen gela.

10. taula. 4 urtekoen azterketa

| AZTERKETA | HAURREN PRODUKZIOAK | OHARRAK |
|--------------|---|--|
| Deklinabidea | - Daude uran monedak, dineroak. | Ez du mugagaberik erabiltzen. Uretan esan ordez, uran esaten du. |
| | - Nire ahizpa eta ni esnatu gara ordu misman . | Erdal kutsua. Erdarazko adierazpena euskaraz balitzan |

| | | |
|-------------------------------|---|---|
| | | deklinatzen du (la misma hora = ordu berean). |
| | - Mendia joan naiz eta zegoen kaballitoak. | Ez du adlatiborik (nora) erabiltzen, absolutiboa erabiltzen du. |
| | - Parkean jolastu nire amatxorekin. | Soziatiboa ondo erdietsi du. |
| | - Es que jo didate castellanokoek. | Nahiz eta erdal kutsua izan, ergatiboa ondo erabiltzen du. Nor-nori-nork gaizki. |
| | - Ni joan nintzen etxera Irunekoa (Iruneren etxera). | Gaizki deklinatu du. Noren (edutezko genitiboa) erabili ordez, nongo (leku denborazko marka)erabiltzen du. |
| | - Joan nintzen Lerinera. Emm ... jolastu plazan, Lerineko plazan. | Nora (adlatibo) eta nongo (leku denborazko) markak erabiltzen ditu. |
| | - Nire aita da amerikano. | Erdaraz deklinatu du <i>amerikarra</i> ordez, <i>americano</i> . Gainera, orden akatsa izan du (<i>da</i> ezkerrean). |
| | - Bizikletarekin paseoa amatxorekin. | Soziatiboa ondo erabiltzen du. |
| | - Zertarako egin duzue? Jartzeko itsasoan | -tzeko morfema atxiki du. |
| | Izen sintagma: geroz eta konplexuagoak. | - Nik daukat egutegi bat Pirritx eta Porrotxena |
| - Nire amona deitzen da Asun. | | IS konplexuago da. Bi elementu. |
| - Eman zuen krema solekoa. | | Izena + izenordea |
| - Loreak gustatzen zait. | | IS sinplea |
| - Ni bezala hauek daukat. | | Konparaketa erabiltzen du. |
| Aditza: | - Zegoen mariposa bat. | Lehenaldia erabiltzen du baina aditza ezkerrean jarri du. |
| | - Nik subitu dut puntara | Analogia, -tu-z bukatutako aditza sortu du, aditz laguntzailea <i>dut</i> ordez, <i>naiz</i> -en ordez |
| | - Ni bizi dut Erripagainan. | <i>Naiz</i> ordez <i>dut</i> erabili du. |
| | - Nik andatu Noain asko. | Ez du aditz laguntzailerik erabili. |
| | - Si kontatzen dizugu, hasarretuko zara. | Baldintza. Lehenengo elementua erdarazkoa da. Hala ere, bigarren zatia ondo jokatzen du. |

| | | |
|---|---|--|
| | - Nire amona deitzen da Asun. | Deitzen da (= llamarse), erdararen kalkoa |
| | - Zergatik idatzi duzu arkatzez? Zergatik konfunditu borratu | Aditz laguntzaileak falta dira. |
| | - Azkena apirilaren eguna. | Ez dago aditzik. |
| | - Irune ez utzi Anerena. | Aditz laguntzailea falta da. |
| | - Ez diozu jartzen piraten hori, eskudoa? | Nor nori nork erabiltzen du. |
| | - Loreak gustatzen zait . | Plurala ez du erabili. |
| | - Joan nintzen piszinara eta joan nintzen aitarekin eta nire anaiarekin. Eta amarekin eta Norarekin ez zeren zegoen gaixorik. | Lehenaldia ondo, eta ezkerrean kokatzen du. |
| | - Jolastu dut (nuen) Mikelekin futboleant. | Lehenaldian hitz egiten ari da baina orainaldiko aditza erabiltzen du. |
| | - Ni parkean jolastu dut (nuen). | |
| Esaldi elkartuak: mendeko perpausak erabiltzen hasten dira. | - Txokora joaten naizenean ez dakit zer jolastuko dudan. | - <i>nean</i> denborazko esaldietan |
| | - Ni daukat primo bat que da txiki txikia | <i>Que</i> erdal erlatiboa. |
| | - Joan nintzen piszinara eta joan nintzen aitarekin eta nire anaiarekin. Eta amarekin eta Norarekin ez zeren zegoen gaixorik. | “Eta” lokailuaren bidez lotzen ditu esaldiak gehienetan. Menderagailuak ere erabiltzen ditu (zeren). |
| | - Da itsasontzia zergatik dauka bandera. | <i>Da-z</i> hasitako esaldiak |
| | - Si kontatzen dizugu, hasarretuko zara | Baldintzazko esaldia. Erdararen kalkoa eginez. |

3.3. H.H.ko 3.maila : 5 urtekoen gela.

11. taula. 5 urtekoen azterketa

| AZTERKETA | HAURREN PRODUKZIOAK | OHARRAK |
|--------------|---|--|
| Deklinabidea | - Zer esan dizu amatxok etxetik atera zarenean? - Etxetik atera naizenean amatxok esan dit ... eehh ... ezer esan dit nire amatxok. | Ergatiboa ondo erabiltzen du. |
| | - Nora joaten da Mendillorriko biltegiko ura? - Ehh ... etxera, komunean, sukaldera ... ehh ... fuentera, kozinara, fabrikara ... | Nora (adlatiboa) kasu marka erabiltzen du. |
| | - Gustatu zait Irati margotzea aurpegia. | Ergatiboa (Iratik) erabili ordez, |

| | | |
|---------------|---|---|
| | | absolutiboa (Irati) erabili du. |
| | - Ez du amaierarik ematen. | Partitiboa erabiltzen du. |
| | - Nik zapatillak futbolena konpratuko ditut. | Nongo (leku denborazko) kasu marka erabili ordez, noren (edutezko genitiboa) erabiltzen du. |
| | - Gauzak irakurri behar ditu. Eskolara joan behar du irakurtzeko. | |
| | - Izarra da puntak dituztelako. | Singularra erabili ordez, plurala erabiltzen du. Puntei buruz ari delako oker deklinatzen du. |
| | - Non gosaldu duzu gaur gozean jaiki zarenean? - Sukaldean. Gaur goizean jaiki naizenean gosaldu dut sukaldean. | |
| Izen sintagma | - Niri gehien gustatu zitzaidana izan zen barrioren bideoa . | IS konplexuagoak: Barrioren (auzoaren) bideoa. |
| | - Nik zapatillak futbolena konpratuko ditut. | 2 elementuko IS erabiltzen du. |
| | - Gustatu zait korrika egin zezenarekin . | Partizipioa, -tzea-ren ordez. |
| | - Gehien gustatu zait da parkea Elorrikoa . | IS: Elorriko parkea. |
| | - Gustatu zait Irati margotzea aurpegia . | Konplexua. |
| | - Niri gustatu zait parke berria etxeak daukalako sartzeko. | |
| | - Gustatu zait jan gailetak . | Erdal hurrenkera. <i>Gailetak jatea</i> . |
| Aditza | - Egunaren joan ur biltegira zer egin genuen ? - Ikusi genuen bideo bat barriorena eta eman ziguten edalontzi bat barriorena. | Lehen aldiko formak erabiltzen ditu. |
| | - Zein da hoberen ezagutzen duzun tokia ? - Eugi. Es que joan naiz bi aldiz. Eugi ezagutzen dut zeren joan naiz bi aldiz. | Hasieran erderakada erabiltzen du baina gero zuzentzen du menderagailuen bidez. |
| | - Irakurtzea aspergarria izan daiketelako . | Aditz forma asmatua erabiltzen du. |
| | - Irakurri dakitenek irakurri dezakete. | Partizipioa erabili du, erdal kalkoa. |
| | - Gustatu zait korrika egin zezenarekin . | Korrika egitea izango litzateke forma zuzena. |
| | - Kajak-rekin, kartoiarekin eta rekortatzen . | Nahiz eta erdal aditzak erabili, |

| | | |
|------------------|--|--|
| | Hau ere pegatu dugu. | forma zuzenean jokatu ditu. |
| | - Zertara jolastuko duzu txokoan eta norekin jolastuko duzu? - Ez dakit. Txokora joaten naizenean ez dakit zer jolastuko dudan. - Annerekin. Uste dut Annerekin jolastuko duela (dudala). | Denborazko esaldi jasoak. Zehar galderak jasoak. Esaldi konpletiboak jasoak. |
| Esaldi elkartuak | - Zer dago Ultzama ibaian? - Ehh ... karramarroak, ere bai arrainak, ahateak eta ... ez dakit. | <i>Ere bai</i> ezkerrean. |
| | - Zer egingo duzu gaur egunean zehar? - Inglesa, eh ... joango naiz bazkaltzera eta jolastuko dut patioan. Ehh ... lagunekin jolastuko dut eta ehh ... ezer gehiago. | Gutxitan erabiltzen ditu lokailuak. Erabiltzen duen bakarra "eta" da. |

3.4. Garapenaren behaketa

Ikusten denez, hurrek garapen zehatz bat izaten dute. Hasieran esaldi sinpleak erabiltzen dituzte eta askotan ez dute komunikazioa lortzen hartzaileak mezua ulertzen ez duelako. Hauek hiru arazo mota izaten dituzte, gramatikakoak, hiztegikoak eta ahoskerakoak. Bigarren mailan aldiz, nahiz eta ulermena egoten den, ulergarriak izaten dira hurrek esandako esaldiak, baina, akats ugari izaten dituzte gramatikaren aldetik. Azkenik, hirugarren mailakoek hartzailearenganako ulermena era bat ziurtatuta daukate. Dena den, oraindik akats ugari izaten dituzte Lehen Hezkuntzan zuzenduko dituztenak.

Hala ere, esan beharra dago haur hauek ez dutela zehatz mehatz teoriar aipatutako garapen hori jasan. Egia da bi motatako hurrek (ama hizkuntza erdara eta euskara dutenek), antzeko garapena izaten dutela, baina, denboraren diferentziarekin. Ama hizkuntza erdara dutenek, euskaldunak bezala garatzen dute hizkuntza baina beranduago. Adibidez; haur euskaldunek 3 urterekin aditz laguntzaileak eta iraganeko formak erabiltzen dituzte. Erdaldunek aldiz, aipatutako hori 4 urterekin lortzen dute. Beraz, esan daiteke urte bat "atzeratuak" daudela hizkuntzaren aldetik. Izan ere, H.H.ko 1.mailan ulermena lantzen dute gehien bat, eta ez produkzioa euskaldunek bezala. Honetaz gain, aipatzekoa da erdaldunen akats asko erdararen kutsuarengatik direla. Euskaldunek aldiz, ez dute arazo hau.

Arestian esan bezala, garapen hori haur euskaldunek izaten dute eta aurkeztutako hauek aldiz, euskaldun berriak dira eta etxeko eta herriko ingurunea nagusiki erdalduna da. Hortaz, nahiz eta hizkuntza atxikiko duten azkenean, beranduago lortuko dute, eta, akatsak beranduago zuzenduko dituzte. Dena dela, azkenean euskaldunek lortuko duten maila berera iritsiko dira arazorik gabe.

Ondorengo taula honetan, konparaketa bat ageri da. Lehenengo haur euskaldunen garapena azaltzen da, eta bigarren, ama hizkuntza erdara baina, D ereduan dauden haurrena. Modu honetan ikus daiteke zein alde dauden bi haur mota hauen artean, zeintzuk diren haien garapenaren desberdintasunak. Honako hau izango litzateke bakoitzaren urtez urteko garapena:

12. taula. Garapen ezberdinen konparaketa

| | AMA HIZKUNTZA | 3 URTE | 4 URTE | 5 URTE |
|---------------|------------------|---|---|---|
| DEKLINABIDEA | Euskara | <ul style="list-style-type: none"> - Kasu gehienetan singularrean. - Pluralak ere agertzen hasten dira. - Mugagabea absolutiboan agertzen zen (zenbait determinatzaileekin), nahiz oraindik ere hutsak egin, baita lekuzko kasuetan ere. | <ul style="list-style-type: none"> - Kasu nagusienak singularrean eta pluralean ibiltzen ditu. - Partitiboarekin oraindik arazoak izanen ditu. - Mugagabea erabiltzen eta finkatzen doa, nor kasuan eta lekuzkoetan. | <ul style="list-style-type: none"> - Ondo finkatua dago. - Oraindik partitiboarekin eta deklinabide kasuko hainbat mugagaberekin arazoak izanen ditu. |
| | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Non, nora eta norekin kasu markak erabiltzen hasten dira.. - Huts ugari. - Mugagaberik ez. | <ul style="list-style-type: none"> - Ez dute partitiborik erabiltzen. - Mugagabea finkatu gabe daukate. | <ul style="list-style-type: none"> - Normalean ondo erabili. - Partitiboaren erabilera finkatzen hasi. |
| | | Adibidez: "Parkean joango naiz. " (kasu markan hutsa egiten du) | Adibidez: "Daude uran monedak, dineroak. " | Adibidez: "Ez du amaierarik ematen. " |
| IZEN SINTAGMA | Euskara | <ul style="list-style-type: none"> - Izen Sintagma gehienak sinpleak - Izen Sintagma konplexuak agertzen hasten dira. | <ul style="list-style-type: none"> - Izen Sintagma konplexuagoak agertzen dira, bai ezker aldera hedatuak, bai eskuin aldera hedatuak. - Konparaketak ere agertzen dira (-ago, -egi, -en). | <ul style="list-style-type: none"> - Egitura nagusienak ondo ibiltzen ditu. - Zenbait gainorokortze akats oraindik ere egiten ditu. |

| | | | | |
|------------------|---------|---|--|---|
| | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Izen Sintagma oso sinpleak erabiltzen dituzte. -Izen Sintagma konplexurik ez. | <ul style="list-style-type: none"> - Izen Sintagma sinpleak erabiltzen jarraitu. - Izen Sintagma konplexuak agertu. - Konparaketarik ez. | <ul style="list-style-type: none"> - Izen Sintagma konplexuak erabili. - Partizipioarekin ISan akatsak. - Erdal kutsua. |
| | | Adibidez: "Hoi (hori) nirea da." | Adibidez: "Nire amona deitzen da Asun. " | Adibidez: "Gustatu zait korrika egin zezenarekin. " |
| ADITZA | Euskara | <ul style="list-style-type: none"> - Aspektua (-tu, -(z)en, -tuko) garatua dago. - Laguntzailea (nor eta nor-nork) erabiltzen ditu, nor-nori-nork lehenago formak hasten dira agertzen (diot, dit, dizut, etab.). - Iraganeko lehenengo formak ere agertzen dira. | <ul style="list-style-type: none"> -Nor-nori-nork saileko adizki ugari erabili eta finkatzen dira. - Iraganaldia ere bai, bereziki nor eta nor-nork sailean. Nor-nori-nork iraganaldiko adizkiak agertzen dira eta lehenbiziko forma asmatuak ere bai. | <ul style="list-style-type: none"> - Iraganaldiko formak gero eta gehiago erabiltzen ditu. - Forma asmatuak, batez ere nor-nori-nork sailean, erruz agertzen dira (nagoen, zenidazun, zidazun, etab.). - Oraindik ez dira ondo bereizten nauzu/didazu moduko sailak. |
| | Erdara | <ul style="list-style-type: none"> - Aditz sinpleak erabili.(-tu, -tzeke edo partizipioa). - Euskal aditzak erabili eta erdaraz jokatu. -Batuetan aditz laguntzailerik ez. - Iraganako formak kasu berezietan, ia inoiz. | <ul style="list-style-type: none"> - Iraganeko lehenengo formak erabiltzen dituzte. - Aditz laguntzailetan hutsak izaten dituzte. - Ordenaren akatsak, ezkerrean kokatzen dute aditza, erdararen bezala. | <ul style="list-style-type: none"> - Lehen aldiko formak erabiltzen dituzte. - Forma asmatuak agertzen dira. - Orokorrean ondo jokatzen dute. |
| | | Adibidez: " Se me ha botado (erori zait)" | Adibidez: "Zegoen mariposa bat." | Adibidez: "Irakurtzea aspergarria izan daiketelako. " |
| ESALDI ELKARTUAK | Euskara | <ul style="list-style-type: none"> - Juntadurako honako gailuak agertzen dira: eta, baina ... - Mendeko esaldiak ere agertzen hasten dira, lehenbizi aditz izenekin osatutakoak, hau da, jokatugabeak (-(z)era, -(z)eko, ...). - Beranduxeago mendeko esaldi jokatuenak: kausazkoak (- (e)lako, bait- , eta), konpletiboak (- (e)la), lehenengo zehar galderak (- (e)n), erlatiboak (- (e)na), etab. | <ul style="list-style-type: none"> - Juntaduran, aurrekoen gain, edo bidezkoak agertzen dira. - Nominalizazio bidezko mendeko esaldiak agertzen dira (- (t) (z)ea, - (t) (z)en ...). - Mendekoak finkatzen doaz: kausazkoak, erlatiboak, erlatiboaren sintagmaren izenarekin, konpletiboak (- (e)la) ondo erabiltzen ditu, zehar galderak (nahiz oraindik akatsak egin), denborazkoak (- (e)nean). | <ul style="list-style-type: none"> - Esaldi luzeago eta konplexuagoak erabiltzeko gai da (eta erabiltzen ditu). - Denborazko esaldien zabalkundea (- (e)nean, ondoren / eta gero, -ta, bitartean ...). |

| | | | | |
|--|--------|--|---|---|
| | Erdara | - Askotan lokailurik ez. - Sinpleena erabiltzen dute: <i>eta</i> . - Mendeko perpausik ez. | - Lokailuak ondo erabiltzen dituzte. - Mendeko perpausak erabiltzen hasten dira. - Erdal erlatiboa "que". | - Gutxinaka barneratzen joaten dira. - Askotan ordenaren arazoak izaten dituzte. |
| | | Adibidez: "- Pues ... kolumpioan ... amatxo, aita, Luna ..." | Adibidez: "Ni daukat primo bat que da txiki txikia. " | Adibidez: "- Zer dago Ultzama ibaian? - Ehh ... karramarroak, ere bai arrainak, ahateak eta ... ez dakit." |

4. HOBEKUNTZARAKO ESTRATEGIAK

Hurrengo bi ataletan euskara lantzeko hainbat estrategia aurkeztuko ditut, jarduera gehiago proposatuz, antolaketa eta baliabideak aipatuz:

4.1. Jarduera motak

Atal honetan euskara lantzeko hainbat jarduera moten adibideak emango ditut:

4.1.1. Tradiziozko kantak:

| | |
|--|--|
| “ Garaziko herria Benedika dadila Euskarrari man dio Behar duen tornua. Euskarra, Euskarra, Jalgi hadi kanpora. | Bertzeak orok izan dira Bere goihen gradora Orai hura iganen da |
| Bertze jendek uste zuten Ezin eskriba zaiteien Orai dute porogat Enganatu zirela. Euskara, Euskara, Jalgi hadi plazara. | Bertze ororen gainera. Euskara, Euskara, Jalgi hadi dantzara. Orai dano egon bahiz Inprimitu bagerik Hi engoitik eabiliren Mundu guzietarik. Euskara, Eukara, Habil mundu guzira “ |

“Maritxu nora zoaz eder galant hori?
Iturrira Bartolo nahi badezu etorri
Iturrian zer dago?
Ardotxo txuria
Biok edango degu nahi degun guztia ... “

4.1.2. Olerkiak:

| | | |
|---|---|--|
| “ Eguzkia diz-diz urrezko ispiluan itzal eta argi itzal eta argi ibaia garden ibaia garbi ibaia kantari | Autoak errepideetan autoak hirietan eguzkiak diz-diz burdinazko ispiluetan | Negarrez heldu da ibaia hirira iluna, zikina. Baina argituko da garbituko da zain daukalako itsaso urdina. “ |
|---|---|--|

(Joxan Ormazabal)

“ Udazkenero bezala, hostoak
elkarren gainean,
euriak minik har ez dezan
lur bilgunean. ”

(J. Kruz Igerabide)

4.1.3. Abestiak:

“Sorgina pirulina
erratz gainean
ipurdia zikina
kapela buruan.
Sorgina, sorgina
ipurdia zikina
tentela zara zu
ezetz harrapatu!”

“Jon Braun indio txiki bat zen
Jon Braun indio txiki bat zen
Jon Braun indio txiki bat zen
indio txiki bat zen (Bis)
Txiki bat, txiki bi, hiru indio txiki
lau txiki, bost txiki, sei indio txiki
zazpi txiki, zortzi txiki,
bederatzi indio txiki,
hamar indio txiki,
Jon Braun...”

“ Ostirala iritsi da,
iritsi da ostirala:
Pozez betetako eguna,
zatoz nirekin laguna!
mantalak etxera eta
oporrak bi egunetan,
astelehenean berriz ere
bilduko gara ikastolan. ”

“ Astoak aja-ja
zakurrak uau-uau!
oilarrak ku-ku-rru-ku!
katuak miau-miau!
Eta kanta, kanta
kanta, kantari;
eta dantza, dantza
dantza, dantzari.
Eman, eman, eman bai
danberrari,
eman, eman, eman bai
turutari.. ”

4.1.4. Hitz jokoak:

“ Baratzeko pikuak
ez dauka pikurik,
baratzeko pikuak
ez dauka pikurik.
Lapurto dutenak
ez dauka lotsarik. ”

(Joxean Ormazabal)

“ - Bata eta bia.
- Gaur da inauteria.
- Hirua eta laua.
- Egunak dakar gaua.
- Bosta eta seia.
- Dantzarako deia.
- Zazpia eta zortzia.
- Dantza eta fantasia.
- Bederatzia, hamarra.
- Zalaparta eta abarra.

- Hamaika, hamabia.
- Laster da egunsentia. “

“- Aaa!
 - Astarrek arrantza.
 - Eee!
 - Ardi beltzak be.
 -lii!
 - Zaldia irrintzi.
 -Ooo!
 - Otsokok orro.
 - Uuu!
 - Uztar behiak marru.”

“Arre, arre mandako
 bihar Iruñerako
 etzi Tafallarako.
 - Handik zer ekarriko?
 - Zapata eta gerriko.
 - Zapatak norendako?
 - Neska zintzoarentzako. “

(Anjel Lertxundi)

4.1.5. Zotz egiteko kantak:

“ Din, don
 Kikilikon
 Saltsa pika
 Tortolika
 De-bu-zon
 Aitona martzelon
 Kixki eta mixki
 Ta kaxkamelon. “

“ Gaztaina
 gora behera,
 txiri bu
 txiri ba
 kanpora! “

“ Dona dona katona
 sutondoan aitona
 lepotik behera kuttuna
 atera neska edo mutil tuntuña”

4.1.6. Asmakizunak:

“ Bost senide elkarrekin
 txikia gizenarekin
 motza luzearekin
 bakoitza txapel banarekin. “

“ Bizarra gora
 laranja koloreko sudurra behera.
 Bizarra moztu
 eta jaten diogu sudurra
 gordinik edo egosita. “

(eskuko hatzak)

(azenarioa)

“ Gona borobila altxaturik
 hanka bakarra zutik
 buruan gonaren barruan gorderik
 eta dantza egiten dute
 haizeak eraginik. “

“ Ez da txahala, ez da lupa,
 zulo guztiak itxi behariko zaizkio,
 urak ez dezan zurrupa. “

(loreak)

(txalupa)

4.1.7. Ipuinak:

- Gulliver Liliputen
- Kiriko Oilarra
- Hiru txerrikumeak
- Txano gorritxo
- Ahatetxo itsusia ...

4.1.8. Talde antzerkiak (ipuin antzezpenak):

- Gulliver Liliputen
- Kiriko Oilarra
- Hiru txerrikumeak
- Txano gorritxo
- Ahatetxo itsusia ...

4.2. Antolaketa eta baliabideak

Antolaketari dagokionez, gela txokoka egotea oso erabilgarria da. Horrela, bakoitzean gai zehatz bati eskainiko zaio arreta. Hizkuntza lantzeko adibidez oso erabilgarriak dira jolas sinbolikoaren eta hizkuntzaren txokoa.

Haur Hezkuntzaren garaiko jolasik ohikoena jolas sinbolikoa da. Bertan hainbat esparru garatzen dituzte, haien artean hizkuntza. Jolas sinbolikoaren txokoa hainbat mota eta material ezberdin egon daitezke.

13. taula. Txokoetako materialen proposamenak

| Haurtxoen etxea | Automobilak | Gazteluak |
|---|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Biberioiak - Txupeteak - Panpinak eta jantziak - "Haurra" garbitzeko - Izarak, mantak ... | <ul style="list-style-type: none"> - Mota guztietako ibilgailuak - Errepide planoak - Eraikuntza jolasen osagarriak - Garajeak ... | <ul style="list-style-type: none"> - Ezpatak - Kaskoak - Ezkutuak - Oihalak - Zaldiak - Kutxak ... |
| Denda | Mozorroak | Ospitalea |
| <ul style="list-style-type: none"> - Salmahaia - Apalak - Balantza -Telefonoa | <ul style="list-style-type: none"> - Ispilu handia - Helduen arropak - Zapatak - Makillatzeko materialak | <ul style="list-style-type: none"> - Eskularruak - Mantalak - Tresnak : belarriak eta ahoa ikusteko, partxeak, |

| | | |
|-------------------------------------|------------------------------|---|
| - Dirua -Saltzeko produktuak ... | - Mozorroak - Oihalak ... | muletak, xiringak - Kamila -Errezetak egiteko ... |
|-------------------------------------|------------------------------|---|

Gai ezberdinak izan arren, azkenean guztiak aitzaki paregabeak dira hizkuntza lantzeko. Hizkuntz txokoari dagokionez, oso garrantzitsua da arreta eskaintzea uzten diren materialei. Izan ere, hauek izango dira hizkuntza lantzeko aukera emango duten baliabideak.

- Ipuinak (haurrek erraz ezagutzeko moduko ipuinak, azalak ikusteko moduan jarrita).
- Irudiak dituzten grabatuak eta horma irudiak: animaliak, frutak, objektuak, pertsonak, etab.
- Aldizkariak
- Ilustrazioak
- Txotxongiloak: eskuz mugitzen direnak, eskuzorroz egindakoak, hatzetan sartzekoak, makila dutenak, harizkoak, etab.
- Diapositibak
- Argazkiak

Aipatutako materialaz aparte, gelako pertsonaia izateak aukera asko ematen ditu hizkuntza lantzeko. Horrekin antzezpenak egitea oso onuragarria da garapenarentzat. Horretarako, oso ideia ona izango litzateke txoko honetan antzoki bat izatea. Modu honetan haurrek libreki nahi dutena antzez dezakete.

Honetaz gain, espazio goxo eta lasaia izatea garrantzitsua da, haurrek gogoko izan dezaten.

ONDORIOAK

Euskararen garapenaren azterketa egin ondoren, argi ikusi dut erabiltzen den metodologia egokia eta ondo planteatua dagoela. Irakasleek so argi daukate euskara zein baliabiderekkin eta nola landuko duten. Esaterako, oso zehaztuta daukate zein unetan eta zein testuingurutan landuko dituzten gramatika egiturak. Euskara lantzen duten momentu bakoitza ez da gidatua izaten, izan ere egun osoan lantzen dute; asanbladetan, txokoetan edo patioan daudenean, komunera edo jantokira joateko garaian, etab. Gainera, lantzeko baliabideak anitzak dira; abestiak, olerkiak, ipuinak, asmakizunak, antzerkiak, zotz egiteko kantak ...

Azpimarratzekoa da, ez dela batere erraza haurrentzat giro erdaldun honetan euskara ikastea, prozesu luzea baita. Iruñerriko kasua hartuta, ume askok ama hizkuntza erdara daukatenez, hizkuntza berria izaten da haientzat eta haien lehenengo produkzioa akatsez beteta egoten da, erdara guztiz barneratuta daukatelako.

Beste alde batetik, esan beharra dago, umeek euskara eskolako hizkuntzatzat daukatela eta bakarrik han entzuten dutenez, soilik eskolan entzutera ohitzen dira eta kalean eta haien artean, nahiz eta guztiek euskaraz jakin, erdaraz hitz egiten dute. Dena den, gelako lider positiboa (pertsona onak direnak, lagunkoiak, besteentzat eredu onak, etab.) euskalduna edo euskara menperatzen badu, laguntza handia izaten da euskara bultzatzeko garaian. Izan ere, gelako gainontzeko haurrek ikusten badute liderra beti euskaraz ari dela edota irakasleak eredu bezala jartzen duela euskaraz saiatzeagatik, besteak ere saiatzen hasiko dira.

Honetaz gain, haurrak euskaraz hitz egiten hasten direnean, haien lehenengo produkzioetan, nahiz eta gaizki hitz egin edo ondo ez ulertu adierazi nahi dutena, animatu behar zaie iruzkin positiboen bidez. Horrela ez bada egiten, lotsatuko dira edo hanka sartzeari beldurra izango diote eta ez dira ausartuko euskaraz hitz egiten. Horregatik, kontu handiz ibili behar da eta kontuan izan behar da zein den haur bakoitzaren jarrera eta nortasuna euskara irakasteko orduan.

Aipatutakoaz aparte, lan honen bidez baieztatu dut irakasleek paper oso garrantzitsua daukatela haurren euskarazko garapenean. Hasteko, irakasleak hizkera sendo bat izatea oso beharrezkoa da, askotan irakaslea euskarazko eredu bakarra izaten delako. Honetaz gain, jakin behar dute hurrei zer eta nola zuzendu. Adibidez, akatsen bat egiten badu, irakasleak esan behar den moduan esaten badio, ikasleak txartzat har dezake zuzenketa, errieta moduan. Horregatik, oso egokia da ikaslearentzako zuzentze iradokizunak erabiltzea. Horrela, zuzenketa berak egitez gain, ikasiko du eta pozik geratuko da:

- Ikaslea: Irakurri dakitenek irakurri dezakete.
- Irakaslea: Oso ondo ulertu zaizu, baina saia zaitez beste era batean esaten ...
- Ikaslea: Irakurtzen dakitenek irakur dezakete.

Hala ere, badago zuzentzeko beste modu bat. Denon artean pentsatzen badute nola izan daitekeen forma zuzena, azkenean nahiz eta akatsa egin duenak ondo ez esan, beste ikasle batek esan duenez, bera ere saiatuko da.

Nire ustez, lan hau egitea ez da bakarrik onuragarria irakasle izango naizenerako, lan hau interesgarria suerta daiteke euskaldun den edonorentzat. Lan honen bidez ikusten da hurrek nola jasaten duten hizkuntza garapena, zeintzuk izaten diren haien ohiko akatsak eta hauei nola aurre egin ahal zaien. Askotan, Haur Hezkuntzako etapari ez zaio beharrezko garrantzia ematen, eta honen bidez isla daiteke zein den egiten diren lanetako edo erronketako garrantzitsuenetariko bat, hizkuntza.

Laburbilduz, euskaraz beranduago ikasten hasten diren arren, prozesu arrunta izanen dute. Haur Hezkuntza amaitzen dutenerako, ez dute euskaldunek duten maila bera izango, baina, denborarekin, azkenean lortuko dute. Horretarako, hizkuntza berri hau irakasteko erabiltzen den metodologia kontuan izan beharrekoa da. Honekin jarraituz, esatekoa da euskara irakasteko aztertu ditudan estrategiak guztiz aproposak direla hurrek gustura eta egoki ikasteko.

ERREFERENTZIAK

CLAVIJO GAMERO, R., & RIBES ANTUÑA, M.D. (2013) *Educadores de escuelas infantiles*. Sevilla: MAD.

LAGUÍA, M. J., & VIDAL, C. (2009). *Haur eskoletako jarduera txokoak (Otik 6 urtera)*. Gipuzkoa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

LERTXUNDI, A. (2002). *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*. Donostia, Gipuzkoa: Elkar argitaletxea.

MANTEROLA GARATE, I. (2010). *Euskarazko murgilketa Haur Hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa*. Vitoria -Gasteiz, Araba: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MILLAN CHIVITE, F. (1995-96). *El Estadio Germinal en la Lengua del Niño*. Sevilla: Cauce.

NAFARROAKO GOBERNUA (2007). *Curriculum. Haur Hezkuntza 2. zikloa*. Iruñea, Nafarroa: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen fondoa.

NAVARRO PABLO, M. (2003). *Adquisición del lenguaje. El principio de la comunicación*. Sevilla: Cauce.

PIAGET, J. (1965). *El lenguaje y el Pensamiento*. Buenos Aires, Argentina: Paidós.

RUIZ BIKANDI, U. (2009). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Gipuzkoa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.


SANZ, M., & BILBATUA, M. (1999). *Proyectos, géneros textuales y modos de intervención en cada ciclo de Educación Primaria. Una experiencia en modelos de inmersión*. "Infancia y aprendizaje", 57 - 71, 86.

TOUGH, J. (1989; 113 - 114). *Lenguaje, conversación y educación. El uso curricular del habla en la escuela desde los siete años*. Madrid: Visor.


ZUBIRI, J.J. (2010-11). Unibertsitateko apunteak.

ERANSKINAK:

E. Hiru txerrikumeen komikia:



3. irudia




4. irudia



5. irudia



6. irudia



7. irudia



8. irudia



9. irudia

